

MEMORIA

2020
2023



**EUSKAL
WIKILARIEN**
KULTURA ELKARTEA

Aurkibidea

Sarrera	3
Hezkuntzan zentratu	4
• Kalitatezko 2.000 artikulua 12-16 urteko ikasleentzat	4
• Txikipedia	40
• Hezkuntza Ataria.....	43
• Ikusgela	45
• Unibertsitateekin egindako lana.....	57
Gainontzeko artikulua hobetu	60
• Euskarazko Wikipediaren hobekuntza orokorra	60
• Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikulua	61
• Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikulua	63
• Emakumeen presentzia	66
• Lehiaketak.....	69
Egindakoa ezagutarazi	70
• Nazioarteko zabalpena	70
• Komunikazioa hobetzea.....	71
Gehigarria: artikuluen bilakaera taulak	72

Sarrera

Zaila da azken lau urteotan egin dugun guztia laburbiltzea dokumentu bakar batean, bereziki bidea oparoa izan denean. Testu honetan saiatuko gara egindakoak azaltzen, beti hobetzeko aukera dagoen proiektu baten nolabaiteko itxiera emateko asmoarekin.

Euskal Wikilarien Kultura Elkarreak anbizio handiko plana abiatu zuen orain dela lau urte, euskarazko Wikipediako edukia nabarmen hobetzeko helburua zuena. Wikipediaren hazkuntza norabide zehatzetan garatzeko proposamena zen: 12-16 urteko ikasleek gehien behar duten edukia hobetzea, eta aldi berean irakurle guztientzat proposamen berriak egitea. Tarte horretan bestelako proiektuak sortu dira, Txikipedia edo Ikusgela kasu. Nazioarteko lankidetzan sakondu dugu, euskarazko Wikipediaren sareko presentzia eta komunikazioa hobetu dugu, eta euskara hainbat kalitate zerrendatan munduko lehen hogeitaz hartzuntzen artean kokatu dugu. Lau urteotan hitz kopurua bikoiztu dugu, Lur Hiztegi Entziklopediko osoa halako hamabi idatziz. 7.000 editore baino gehiagok euskaraz idaztea lortu dugu, hau da, euskarazko Wikipedian euskaraz alfabetatu direnetik %1ek hartu du parte lau urteotan. Guk ez dugu beste halako kasurik ezagutzen. Unibertsitate guztiek hartu dute parte hobekuntza honetan, baita Bigarren Hezkuntzako sare guztiek ere. Ehunka irakasle formatu ditugu, eta ikastetxe batzuetan Wikipedia hobetzeko programa finkoak daude.

Ikus ditzagun lorpen hauek atalez atal.

Hezkuntzan zentratu

Orain lau urte ekimen indartsua abiatu genuen Euskal Wikilarien Kultura Elkartean. Lau urteren buruan, euskarazko Wikipedian 12-16 urteko gazteek behar zituzten edukiak hobetzea zen gure helburu nagusia, aldi berean hezkuntzako eragileekin elkarlana sendotuz. Wikipedia euskaraz ikasten ari direnentzat iturri baliagarria izateko helburu horrekin hainbat proiektu jarri ditugu martxan, nabarmenena “Kalitatezko 2.000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat” izenekoa.

Kalitatezko 2.000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat


“Kalitatezko 2.000 artikulu 12-16 urteko ikasleentzat” proiektuan egindako ekimen nagusia izan da. Gure helburua artikulu sorta bat definitzea izan zen, DBHko ikasleen curriculumean definitzen diren elementuekin, eta horiek osatzea. Horretarako, wikilarien lanaz gain, unibertsitateko irakasle eta ikasleen laguntza bilatzen genuen.

Zerrenda egiteko Berritzegunearen laguntza izan genuen hasiera batean, proiektua hasi zenean erabiltzen zen Heziberri curriculum dekretuko elementuak erauzi eta finkatzeko. Eredu bakoitzean zenbaki borobil bat bilatu genuen, eta hasiera batean 1.000 item bildu behar zituen zerrenda 2.000 osatzeraino hedatu zen, eremu edo ikasgai bakoitzeko adituekin egon eta gero. 2.000 artikulu hauen gainean neurgailuak jarri genituen, eta “kalitate” esaten genuenean zer esan nahi genuen ere definitu genuen:

- 1.000 item genituenean, kalitate neurgailu gisa jarri genuen 5.000 bytetik gorako artikuluak izatea guztiak.
- 2.000 item genituenean, 5.000 bytetik gora 1.000 artikulu baino gehiago izatea zen helburua, baina beste 1.000 horiek definitu gabe.
- ORES sistema instalatu genuen gero [ikus beherago], kalitate neurketa objektiboagoa bermatzen zuena. Gutxienez 1.000 artikuluk C maila baino gehiago izatea izan zen erronka.
- Azken urtean, emaitza oso onak zirela ikusita, 2.000 bytetik beherako artikulurik ez egotea eta, aldi berean, Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluen zerrendan agertzen ziren artikulu guztiek 30.000 bytetik gora izateko helburua jarri genuen.

Emaitza orokorrari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu lau kalitate irizpideak bete direla:


Proiektua hasi genuenean, 971 artikulu ziren 5.000 bytetik beherakoak, 682 zeuden gainetik (%34,1), eta beste 347ak ez ziren existitzen. Orain 410 artikulu baino ez daude 5.000 bytetik beherakoak, 1.565 artikulu (hasieran proposatutakoa baino 565 gehiago) dira 5.000 bytetik gorakoak (%73,55) eta soilik 25 artikulu daude existitzen ez direnak. Hona hemen eboluzio grafikoa:




Proiektua behin hasita, ORES neurketa sistema («Objective Revision Evaluation Service») erabiltzen hasi ginen. Sistema honekin hainbat artikulu eskaintzen dira ebaluatzeko, eta aurrez zehaztutako ebaluazio mailak erabilia (Nabarmen, Ona, B, C, Hasi, Zirriborro) nota ezartzen zaie. Ondoren, sistemak ikaskuntza automatikoa darabil komunean zer duten ikusteko, eta edozein artikuluri ebaluazio horretan oinarrituta nota jartzen die. Ikasleentzat C motako artikulua nahikoa izan daiteke, eremu gehienetan, baina gure helburua zen hortik gorakoak izatea ahalik eta artikulu gehien, hasierako 1.000 artikulu horiek baino gehiago.

ORES sistemak hainbat gauza saritzen dituela konprobatu dute enpirikoki: artikuluen antolaketa ona izatea (izenburuak, atalen oreka), irudiak egotea atal bakoitzean, paragrafoen arteko oreka ona izatea eta, batez ere, erreferentziak egotea. Azken horrek duen garrantziaz jakitun, ikasleekin lantzen egon garenean erreferentzia bibliografikoetan sakondu dugu, kalitatezko artikulua lortzeko irizpideak bete ditzaten.

ORES sistemaren lehen ebaluazio bat egin ostean, 2019ko hasieran bigarren ebaluazio bat egin genuen, eta emaitzak doitu ziren, batez ere erdiko esparruan. Horrela, C baino kalitate hobea izatea zaildu zen, kalitate irizpide hobeak ezarrita. Hau da denboran izandako kalitate hobekuntzaren grafikoak:



Grafikoan argi ikusten denez, hasiera batean C baino hobeak ziren artikuluek heren bat inguru ziren, eta B baino hobeak %16 baino ez. Proiektuak aurrera egin ahala datu horiek hobetzen joan dira, eta gaur egun %85 dira C baino hobeak eta %50 dira B baino hobeak. Hau da, hasieran jarritako helburutik oso gora daude emaitzak. Era berean, jada ez dago zirriborrotzat har daitekeen artikulurik, hau da, ez dago soilik paragrafo bat duen artikulurik. Guztiak dira hori baino hobeak. Eboluzio hori ondo ikusten da ere kopuru absolutuei begiratzen badiegu, eta nola azken urtean “Ona” motako artikuluek gainditu dituzten C ez diren beste kategoria guztiak:



Artikulu “nabarmenak”, lortzen bereziki zailak eta, eremu batzuetan, ezinezko direnak¹, anekdotikoak izatetik 153 izatera pasa dira. Artikulu “onak” 102 baino ez ziren proiektua hasterakoan eta 445 dira gaur egun. Guztira, “Ona” + “Nabarmen” motakoak (ikasle batentzat artikuluek bikain lortzeko baino gehiago hedatzen diren horiek) 547 dira, helburu artikuluek guztien laurdena baino gehiago.

Grafikan ere fenomeno esanguratsu bat ikus dezakegu, gero ere byte kopuruaren gaineko erreposoa egiterakoan gehiago nabarmentzen dena: C motako artikuluek egonkor mantendu dira, eta azken hilabeteetan jaitsi dira, hori baino okerragoak zirenak nabarmen jaisten ziren bitartean. Hau da, artikuluek berriak sortu eta laburrenak hedatu ahala, erdiko mailan zeuden artikuluek ere hobetzen jarraitu dute, guztiak maila ertainean geratu beharrean.


ORES neurketa abiatzerakoan jarri genuen hipotesia ere bete da, beraz. Irizpide automatiko eta nahiko objektibo bat jarraituz egindako kanpo neurketak ere erakutsi digu proiektuak nola hobetu dituen artikuluek. Gainera, erronka interesgarriak ezarri dizkie parte hartu duten ikasleei, askok lortzen zuten zenbakia hobetzeko saiakerak egin baitituzte, erreferentzia gehiago gehituz, irudiak txertatuz edo euren azalpena hobeto antolatuz.

Azken neurgailua artikuluen byte kopuruarena izan da. 2.000 bytetik beherako artikulurik ez egotea eta, aldi berean, Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluen zerrendan eta gurean zeuden elementuek 30.000 bytetik gora izateko helburua jarri genuen 2023rako. Neurketa egiteko histograma bat eraiki dugu, byte tarte bakoitzean zenbat artikuluek zeuden ikusteko. Sei hilabetero neurketa hori berregin dugu, denboran artikuluen byte kopurua nola aldatu den aztertuz. Ikusiko dugunez, nabarmen bete da helburua:

1 Eremu batzuetan ezinezko da artikulu nabarmen bat lortzea. Oro har, 50.000 bytetik gorakoak, hamarnaka erreferentziekin, atalez ondo hornituak eta irudien balantze ona behar dute. Gaietako batzuk (adibidez, euskal zinemagintzako gai batek, edo matematikako elementu oso zehatz batek) ezin dute lortu halako artikulurik eta, lortu ahal badute ere, ez du zertan erabilgarri izan behar Entziklopediaren irakurle batentzat.

	Hasiera	2018/06	2018/12	2019/06	2019/12	2020/06	2020/12	2021/06	2021/12	2022/06	2022/12	2023/06	2023/12
0	347	271	228	178	130	108	74	58	52	41	34	27	25
500	63	43	36	28	21	20	16	11	1	0	0	0	0
1000	164	122	117	109	78	67	64	56	39	25	20	13	0
1500	129	135	114	104	102	96	93	83	80	66	56	37	0
2000	149	141	120	111	99	102	100	93	94	65	56	21	0
2500	114	113	95	92	99	84	85	79	76	78	80	102	111
3000	103	107	96	89	90	81	79	73	69	64	63	67	72
4000	126	123	118	107	105	102	105	102	106	103	103	107	121
5000	123	127	112	114	121	113	116	108	106	116	117	111	106
10000	333	393	436	434	450	449	457	456	440	436	420	384	381
15000	139	160	195	231	243	251	249	268	273	284	302	286	261
20000	78	100	115	139	147	161	172	187	193	214	215	225	198
30000	67	82	100	120	140	160	166	181	200	225	241	255	244
40000	26	32	45	49	59	67	75	85	94	98	99	134	220
50000	14	17	21	31	36	38	43	45	50	56	55	68	82
>50000	25	34	52	64	80	101	106	115	127	129	139	163	179

Aurreko berbera hobeto ikusten da grafiko honetan:




Ezkerrean sortu beharreko artikulua daude, ia 350 izatetik zerbait anekdotikoa izatera pasa dena (25, gero ikusiko dugun hiru eremutan pilatu direnak). Gaur egun 2.000 bytetik beherako artikulua guztiak ere desagertu dira, eta hurrengo eremuak gutxitu edo berdintsu mantendi dira, harik eta 5.000-10.000 byteko tartera iritsi arte. Hemen ikusten dugu aurretik ORESein ikusitako fenomeno berbera: hasiera batean artikulua hauek izan ziren igoyerarik handiena izan zutenak, eta oraindik ere tarte honetan artikulua asko metatzen badira ere, azken bi urteotan kopurua gutxitzen joan da, horiek ere hedatu ahala. Artikulu ertainak dira, DBHko ikasle batentzat balekoak izan daitezkeenak, baina hazten jarraitu dutenak.

Eskuman artikulurik luzeenak ikus ditzakegu, eta nabarmena da lehen aipatu dugun 30.000 bytetik gora lortzeko erronkak azken urtean izandako oihartzuna, hasieran 30.000-40.000 tartean gehitun 26 artikulutik gaur egungo 134 horietara igaro baikara. Beste 68 daude 40.000 eta 50.000 arteko tartean eta, amaitzeko, 163 artikulua daude 50.000 bytetik gora. Sakonera handiko artikulua dira, ziurrenik beharrezkoa den guztia bilduko dutenak, eta euskarazko Wikipediako gorenko tartean daudenak.

Hazkuntza nabarmena bada ere, eremu guztietan ez da modu berean eman. Beherago eremuz eremu aztertuko dugu hau, baina hemen batezbestekoa eta mediana aztertuko ditugu. Artikuluen batez besteko tamaina neurtzea interesgarria da eremu bakoitzean dugun egoera zein den jakiteko, eta goiko distribuziotik at dagoena ere kontuan hartu ahal izateko:

	Hasiera	2018/12	2019/12	2020/12	2021/12	2022/12	2023/12
Matematika	4246	6657	8496	9140	10392	11757	13772
Fisika eta kimika	4203	11231	14141	16705	19088	19605	25104
Biologia eta geologia	6963	12679	16840	19257	24061	25921	29494
Geografia eta historia	11175	13892	17625	21551	23906	25780	31383
Kultura zientifikoa	7230	31079	35458	40306	41871	51146	54871
IKT	7256	9117	14594	17678	19914	20599	24320
Hizkuntzak	10833	13866	15747	16219	18535	19278	24913
Emakumea eta generoa	1647	6200	12254	15014	16269	17315	21211
Literatura	6168	7495	8677	10378	11472	12647	14301
Ekonomia eta ekintzailtza	3666	5413	7684	8196	9902	10972	14097
Kultura klasikoa	5529	6992	9555	10828	11089	12624	18208
Filosofia	3161	4136	6806	11148	13839	17723	26833
Plastika eta ikus-entzunezkoak	5634	6335	17862	18438	20059	20593	22594
Musika, dantza eta antzerkia	4961	6052	7078	7709	9575	10937	13984
Gorputz hezkuntza	4276	4626	6697	9259	9853	12534	17807
Guztira	6301	9497	12979	15165	17159	18799	22747


Goiko taulan ekainean egindako neurketen datuak kendu dira, espazio kontuak direla eta. Hala ere, argi ikusten da nola joan den batez besteko tamaina handitzen, hasierako 6.301 bytetik gaur egungo 22.747ra. Hau da, %261,01 igo da artikuluen tamaina orokorra. Zenbaki handietan esanda, 2.000 artikuluek hasieran 12.601.920 byte pisatzen zuten, eta gaur egun 45.494.616 byte, gutxi gora behera 8 milioi hitz (Lur Hiztegi Entziklopediko osoa baino 3 aldiz gehiago). Batezbestekoa grafikan ikusita horrela handitu da:



Aurreko berbera egin dezakegu mediana erabilita. Medianak onura batzuk ditu batezbestekoarekiko, oso desbiazio altua duten zenbakiak non dauden ikusten laguntzen digulako. Hau da, medianak neurketa hobe ematen digu artikulu erraldoi gutxi batzuk dituen kategoria bat baldin badago:

	Hasiera	2018/12	2019/12	2020/12	2021/12	2022/12	2023/12
Matematika	1772	3795	6224	7252	8190	9493	9854
Fisika eta kimika	2373	8331	10402	11981	16485	17308	23112
Biologia eta geologia	3928	7818	9451	10571	15843	17385	19487
Geografia eta historia	4509	5460	7192	9241	10054	10956	17188
Kultura zientifikoa	3885	7012	10195	13488	14797	24343	35435
IKT	4211	7240	10922	13819	14764	15794	19793
Hizkuntzak	5727	7344	9787	10098	12373	12852	16622
Emakumea eta generoa	0	1765	5078	5895	8401	10018	13579
Literatura	3046	4602	5938	6680	7282	8315	8714
Ekonomia eta ekintzailtza	874	1272	2773	3273	5832	7397	10531
Kultura klasikoa	2370	2400	4924	5400	6032	7057	8915
Filosofia	885	1318	2383	4812	9363	17451	27319
Plastika eta ikus-entzunezkoak	2877	3036	3624	4316	4855	5041	5573
Musika, dantza eta antzerkia	3301	4097	4907	5681	6463	7962	9472
Gorputz hezkuntza	2451	2507	4687	6025	6978	10658	17019
Guztira	2644	4634	6652	7730	9141,5	10503	13116


Grafikora eramanez:




Matematika

Matematika eremuan artikuluen hobekuntza orokorra %224 izan da, hau da, edukia hirukoiztu baino gehiago egin da, idaztea bereziki erraza ez den eremu batean. Artikuluen batez bestekotamaina 4.246 bytetik 13.772ra igaro da, mediana 1.772etik 9.854ra igaro den bitartean. Batezbestekoa hasierako mediana baino 1,99 aldiz handiagoa zen, eta amaierakoa soilik 1,39 aldiz. Biak handitu dira, eta euren artean zegoen desbideratzea txikiagoa da orain.

Matematika arloko artikuluen tamaina tartekak
6 hilabetero egindako neurketa



Grafikoan ikus daitekeenez, ez dago jada 3.000 bytetik beherako artikulurik, eta oso gutxi dira ere 5.000tik beherakoak. 10.000 bytetik gorakoak nabarmen hazi dira, eta azken urtean 30.000tik gorakoak. Artikuluen hobekuntza horretan kalitateak ere nabarmen egin du gorantz.



Kalitatea ORESein aztertuta, ikusten da matematikaren eremuan artikuluen gehiengo oso handi bat C motakoak direla. Matematikari buruzko artikulua gehienetan zaila da asko idaztea, eta hori da ORESek txalotzen duena. Hala ere, artikulua bat egon daiteke ondo egituratua, azalpen zehatz eta grafikoa eman eta, hala ere, ez lortu C edo B baino gehiago. Garrantzitsua da “Hasi” motako bakarra dagoela (*Banakortasun*) eta artikulua honek gaiaren inguruko azalpena baduela.

Ikus daitekeenez, artikulua “nabarmena” ere bakarra da (*Geometria*), eta B baino hobekien direnak artikuluen herena dira.

100
artikulu

%224
hazkuntza

%98
C edo hobeto



Hazkuntza hori lortzeko gakoak, eremu gehienetan bezala, unibertsitateko irakasle eta ikasleen parte-hartzea eta wikilarien ekimena izan dira.

Unibertsitateari dagokionez, ekimen gehienak UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean egin dira. Bertan Matematika gradua dago, eta gradu horretan sakondu dugu Oinarrizko Matematika ikasgaiari, bai gure zerrendan zeuden zein bestelako oinarrizko kontzeptuak hobetzen. Ikasgai horretaz gain, Euskararen Arauak eta Erabilera izenekoan sei urtez izan ditugu matematikako ikasleak artikuluak hobetzen, bereziki sakon eta hiztegi zuzenarekin. Gainera, Informatika Fakultateko eta Ingeniaritza Fakultateko ikasleak ere izan ditugu, noizbehinka, matematikari buruzko artikuluak hobetzen.

Wikilarien artean ohiko jardueraz gain, lehiaketak ere izan ditugu matematikako artikuluak hobetzeko. Kasu honetan ez ditugu 100 artikulu hauek izan jo-puntuak, baizik eta zabalagoa den Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen zerrendakoak. Teknologia eta matematikako gaiak landu genituenean (2022ko azaroa), 766 kilobyte gehitu ziren, 43.329 hitz, 35 artikulku sortu eta 786 erreferentzia bibliografiko gehitu ziren. Matematikari buruzko gure oinarrizko zerrendaz gain, beste zerrenda batzuk ere osatu ditugu, beraz.

Multimediari dagokionez, bi izan dira matematika arloan jorratutako bideak. Lehenengoa proiektuaren hasieran bertan egin genuen, BertsoMate izeneko proiektua, b^m moduan estilizatua. Bertsolaritza eta matematika lotzen zituzten bideoak ziren, Jone Uria bertsolari eta matematikan doktorarekin egindakoak. Bideo hauek hainbat oinarrizko kontzeptu azaltzeko helburua zuten, errima erabilia.


Bigarren multimedia proiektua Jakindun ekimenarekin bat egitea izan da, euren matematikari buruzko bideoak artikuluetan txertatu ahal izateko. Jakindunen bideoek ariketak nola ebatzi azaltzen dute, ez dira, beraz, azalpen bideo hutsak, baizik eta praktikoak. Gaur egun gure zerrendan agertzen diren 100 artikulutik 32k (hau da, heren batek) dute Jakindunen bideo bat gutxienez, berariaz prestatutako egiturarekin. Wikipediako kodean ere aldaketak egin ditugu, artikuluko batean “Ariketak” izeneko izenburu bat dagoenean bideo baten ikonoa ager dadin.




Fisika eta kimika

Fisika eta kimika eremuan artikuluen hobekuntza orokorra %497 izan da, hau da, edukia seikoiztu baino gehiago egin da, kalitate handiko eremu batean bilakatuz. Artikuluen batez bestekotamaina 4.203 bytetik 25.104ra igaro da, mediana 2.373tik 23.112ra igaro den bitartean. Hau da, mediana eta media oso antzekoak dituen eremu bat ikusten dugu, tamaina ertaineko artikuluen ugarirekin. Batezbestekoa hasierako mediana baino 1,93 aldiz handiagoa zen, eta amaierakoa soilik 1,09 aldiz. Tamaina distribuzio askoz egonkorragoa dute orain artikuluek, hazkuntza erraldoia izan duten arren.

Fisika eta kimika arloko artikuluen tamaina tartekak
Sei hilabetero egindako neurketa



Grafikoan ikus daitekeenez, 2.000 byte baino txikiagoa den artikulurik ez dago, eta oso gutxi dira 5.000 bytetik beherakoak. Hasieran talderik handiena 5.000 eta 10.000 arteko artikuluek ziren, baina gaur egun horien gainetik daude talde nahiko, bereziki nabarmena 30.000 eta 40.000 arteko artikuluek, bigarren talderik handiena gaur egun 20.000 eta 30.000 byte dutenen ondoren. 10 artikuluek daude 50.000 byte baino gehiago dituztenak.



Kalitatea OREsekin aztertuta, ikusten da artikuluen kalitatea nola den esanguratsua eremu honetan. Hasiera genituen “Hasi” motako artikuluen ordez (erdia baino gehiago ziren), gaur egun C mota baino hobek dira artikuluen %93, eta B mota baino hobek %70,6. Artikulu “onen” kopuru izugarria da azpimarratzekoa, talderik handiena osatuz.

Artikulu “nabarmen” gutxi batzuk ere badira, baina “Hasi” motakoak bezainbeste dira. Horrek erakusten du distribuzio oso ona dagoela, artikuluek labur batzuk egon arren, artikuluek luze, sakon eta ondo egituratuak berdinak.

160
artikulu

%497
hazkuntza

%93
C edo hobeto

Fisika eta kimikan hazkuntza lortzea beste eremuetan baino errazagoa izan da, badaudelako hainbat fakultate eremu hauek lantzen. Matematikan bezala, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean Fisika zein Kimika graduak daude, hainbat ingeniariatzatan fisikako eta kimikako oinarrizko kontzeptuak lantzeko aukera dago, eta Ibaetako campusean Kimika Fakultatea dago. Azkenik, Filosofiako ikasleek Zientziaren Filosofia ere lantzen dute eta bertan fisika eta kimikarekin lotutako kontzeptu teoriko batzuk ere landu ditzakete.


Wikilariekin egindako lehiaketak ere garrantzitsuak izan dira, bereziki kimikan. 2018ko abenduan taula periodikoari buruzko lehiaketa antolatu genuen. 490 kilobyte gehitu ziren, 25.019 hitz berri eta 605 erreferentzia gehitu ziren. 2022ko urrian zientzia fisikoei buruzko beste bat antolatu genuen, Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen zerrendan zentratuta. 1.726 kilobyte gehitu ziren, 89.320 hitz berri eta 2.026 erreferentzia bibliografiko.

Multimediari dagokionez, hiru izan dira fisika eta kimika arloan jorratutako bideoak. Lehenengoa proiektuaren hasieran bertan egin genuen, UPV/EHUko zientzia astearen baitan bideo batzuk grabatuz. Artikuluetako batzuetan gehitu dira bideoak, baina ez dute emaitza berezirik izan. Bigarren proiektua Kimika Fakultatearekin batera egin genuen, ikasleak grabatuz kimikako oinarrizko gaien azalpen bideoetan. Proiektu honek ere ez zuen arrakastarik izan, ikasleen azalpenak ez zirelako bereziki ondo landuak, eta gutxi ulertzen zelako egin behar zutena. Horren ordez, Mazedoniako wikilariak egindako proiektu bateko bideoak txertatu ditugu hainbat artikulutan, ahotsik gabeko bideoak izanda.

Azken multimedia proiektua Jakindun ekimenarekin bat egitea izan da, Matematikan bezala, euren fisika eta kimikari buruzko bideoak artikuluetan txertatu ahal izateko. Jakindunen bideoek ariketak nola ebatzi azaltzen dute, ez dira, beraz, azalpen bideo hutsak, baizik eta praktikoak. Gaur egun gure zerrendan agertzen diren 160 artikulutik 78k (hau da, erdiak) dute Jakindunen bideo bat gutxienez, berariaz prestatutako egiturarekin. Wikipediako kodean ere aldaketak egin ditugu, artikuluan batean "Ariketak" izeneko izenburu bat dagoenean bideo baten ikonoa ager dadin.

 **Ariketak** [[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Dinamika




Dinamika lantzeko ariketa I. **Dinamika** lantzeko ariketa II. **Dinamika** lantzeko ariketa III. **Dinamika** lantzeko ariketa IV.

Dinamika lantzeko ariketa V. **Dinamika-poleak** lantzeko ariketa.


Biologia eta geologia

Biologia eta geologia esparrua zabala da, sakontasun aldakorra izan dezaketen 200 artikulurekin. Hala ere, bertan daude maiz kontsultatzen diren asko, giza anatomiakoak, zelulak edo eboluzioari lotutakoa kasu. Artikulu hauek %323ko hazkuntza izan dute, hau da, laukoiztu baino nabarmen gehiago egin dugu. Artikuluen batez besteko tamaina 6.963 bytetik 29.494ra igaro da, mediana 3.987tik 19.487ra igaro den bitartean. Artikulu kopuru handia izanda ere, batez besteko tamaina ia 30.000ra iristen da, marka itzela. Batezbestekoa hasierako mediana baino 1,78 aldiz handiagoa zen, eta amaierako soilik 1,51 aldiz. Oraindik nabarmena da artikulu batzuen tamaina handiagoa dela, baina mediana ere oso altua da.

Biologia eta geologia arloko artikuluen tamaina tartekak
6 hilabeteko egindako neurketa



Grafikoan ikusten denez, dagoeneko ez dago 4.000 bytetik beherako artikulurik, eta oso gutxi dira 5.000tik beherakoak. Talderik handiena hasieran ere 5.000 eta 10.000 artekoa zen, eta hazi zen lehenengo bi urteotan, baina ondoren murrizten joan da. Bigarren talderik handiena 50.000 bytetik gorako artikuluenak da, eta aurreko eremuetan ez bezala, azken urteko hazkuntzarik handiena ez da soilik 30.000-40.000 byteko eremuan metatu.



ORES neurketak ere erakusten digu artikuluz guztiak direla jada C maila baino hobek, hasieran erdia baino gutxiago izanda. Era berean, B maila baino hobea dute artikuluen bi herenek, eta “ona” edo “nabarmen” dira artikuluen %40.

Bi neurketerik, beraz, emaitza bikaina eskaintzen dute biologian zein geologian, nahiz eta emaitza are hobea den biologiko artikuluetan, oro har luzeagoak eta prosa gehiago dutenak.

Biologiako gaien kasuan, ekologiari loturikoek ez dute anatomia edo eboluzioari buruzkoek bezalako ORES neurketa, eta hor metatzen da C motako artikuluz kopuru handi bat.

200
artikulu

%323
hazkuntza

%100
C edo hobeto

Geologia eremuan zailagoa izan da unibertsitateko ikasleak lotzea. Gaien espezifikotasun eza, eta geologiako graduan dagoen matrikulazio txikiak oso aukera gutxi eman dizkigu lantzeko. Lortu dugu artikuluetako batzuk lantzea, bereziki “Euskararen Arauak eta Erabilerak” ikasgaiaren barruan, baina, oro har, wikilarien lana izan da hauek hobetzea. Aukerarik onena, bitxia bada ere, Kimika Fakultatean izan dugu, non “Geologia orokorra” ikasgaiak ateak zabaldu dizkigun hainbat artikulu hobetzeko.

Biologian, kontrara, aukera asko izan ditugu ikasleekin lantzeko. Biologian matrikulazioa handia da, eta lantzen diren gaien zabalera oso handia da. Batez ere EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasleak aritu dira artikulua hobetzen. “Biologiako oinarriko kontzeptuak”, “Botanika”, “Mikologia” edo “Giza eboluzioa” bezalako ikasgaiak erraztu dute esparru oso zabalari heltzea. “Euskararen Arauak eta Erabilerak” ikasgaiak lau urtez ikasle kopuru handia erakarri du. Biokimikako eta Ingeniaritza Genetikoko ikasleek ere parte hartu dute, nahiz eta euren ekarpena zehatzagoa izan den, eta ez hainbeste gai orokorrei begira. Hala ere, zelulen funtzionamenduari buruzko artikulu ugari ere hobetu dituzte.

Anatomiari buruzko artikuluetako batzuk Medikuntza fakultateko ikasleek hobetu dituzte. Ikasle hauek zehaztasun handiagoarekin aritu dira, sistema eta organo orokorrak baino gehiago, baina euskaraz giza anatomiari buruz inoiz egindako bildumarik handiena izaten lagundu dute.

Lehiaketan bidez ere lortu dugu hainbat artikulu hobetzea. 2022ko irailean Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen zerrenda hobetzeko lehiaketa egin genuen, biologia eta osasun-zientziak aitzaki hartuta. 1.214 kilobyte gehitu ziren, 63.595 hitz eta 1.581 erreferentzia bibliografiko. 2019ko ekainean ere egin genuen biologia eta geologiari buruzko lehiaketa, baina arrakasta txikiagoa izan zen, soilik 192 kilobyte eta 11.108 hitz gehitu baitziren. 2018ko azaroan giza anatomiari buruzko artikulua hobetzeko lehiaketa antolatu zen, 174 kilobyte gehitu ziren, 8.384 hitz eta 27 artikulu berri.

Multimediari dagokionez, ez da bereziki landu dugun esparrua. Ikusgela proiektuan ekologia eta ingurumenari buruzko saila dugu, oraingoz hiru bideorekin, baina ikasturte honetan beste bost argitaratzeko helburuarekin. Bideo hauek egiteko hasitako bidea garrantzitsua da, beste instituzio batzuekin elkarlanean aritu baikara: NEIKERreko Aitor Cevitanesek gidatzen du, eta bere lankideekin zein Aranzadiko ikerlariarekin egindako elkarrizketak biltzen ditu. Hala ere, galdera espezifikoei erantzuten dioten bideoak dira, eta momentuz soilik 2 artikuluk (200etik) dute bideoen bat txertatuta, eta “albo-gai” gisa. Etorkizunean esparru honi heltzea interesgarria da. Teknopoliseko eta Zientzia Asteko bideo batzuk ere gehitu ditugu, baina ez dugu ustiatu behar den moduan. Artikuluek aukera ona ematen dute bideo bidez azalpenak emateko, hala ere.

Ingurumena [aldatu iturburu kodea]



Animalien migrazioa



Espezie inbaditzaileak




Polinizatzaileak

Geografia eta historia


Geografia eta historia artikuluen gehien dituen eremuetako bat da. Bertan sartzen dira ere hainbat gizarte gai, eta gaur egungo mundua ulertzeko behar diren artikuluen zientifiko-tekniko batzuk ere. Geografiaren aldetik, kontzeptuak dira, elementu geografikoak baino gehiago. Historian artikuluen orokor batzuk sartu baditugu ere, 12-16 urteko ikasleek historia garaikidea ikasten dute. Eta gizarte zientzietako kontzeptuetan, XX. mendeko hainbat gerra, gaur egungo beste gatazka batzuekin elkartuta. Esparru oso zabala, hazkuntzarako zaila dena. Hala ere, artikuluen edukia %181 hobetu dugu lau urteotan, hau da, hirukoiztetik gertu egon gara. Artikuluen batez besteko tamaina 11.175 byte-tik 31.383-ra igaro da, mediana 4.509-tik 17.188-ra igaro den bitartean. Artikulu kopuru handia zen, eta hasieratik prosa asko zituzten artikuluen horietako batzuk. Gaur egungo batez besteko tamaina 30.000-tik gora dago, marka itzela. Batezbestekoa hasierako mediana baino 2,39 aldiz handiagoa zen, eta amaierakoak soilik 1,83 aldiz.

Geografia eta historiako arloko artikuluen tamaina tartekak

Sei hilabeteko egindako neurketa



Grafikoan ikusten den bezala, proiektua hasi genuenean zegoen talderik handiena 5-10.000 artekoa zen, baina jarraian zetozen sortu gabeko artikuluenak. Gaur egun ez dago artikulurik 2.000 byte-tik behera, guztiak sortu dira. Talderik handiena 5-10.000 tartekoa da oraindik, baina gertu ditu 50.000 byte-tik gorako tartea eta 30.000-40.000 byte-tako; bi talde hauen artean 80 artikuluen baina gehiago daude.



ORES neurketa eginez gero, hasieran artikuluen bi heren "Hasi", "Zirriborro" edo, zuzenean, sortu gabekoak ziren. Gaur egun C mota baino handiagoak dira artikuluen %86, eta erdia baino gehiago dira B mota baino hobeak. Artikulu kopuru handia dago ere "Nabarmen" motakoa, 37 guztira, hasierako 8ak baino nabarmen gehiago. Kontuan hartu behar da eremu honetan dagoen artikuluen kopuru handiagatik zailagoa dela guztiak kalitate gorenera eramatea, eta batzuk ere ezinezko izan daitezkeela, gertakari historiko oso zehatza izanda.

305
artikulu

%181
hazkuntza

%86
C edo hobeto

Pentsa liteke hain artikulu kopuru handiarekin erraza izango litzatekeela editatzeko prest dauden irakasle eta ikasleak aurkitzea, baina ez da horrela izan. Bi fakultatetan zentratu ditugu indarrak EHU: Gasteizko Letren Fakultatea eta Leioako Gizarte Zientzien eta Komunikazioaren Fakultatea. Bertan lortu dugu artikuluetakoz batzuk hobetzea, baina lorpen horiek artikulu kopuru handi horretan ere galtzen dira. Gasteizko Letren Fakultatean lortu ditugu ere historiako irakasle batzuk, baina jorratu duten epe historikoa ez da guztiz bat etorri landu nahi genuen elementuekin. Azken urteotan Historia Garaikidea eta Erdi Aroa lantzeko aukera ona izan dugu bertan.

Gizarte Zientzien fakultatean ere saiatu gara artikuluetakoz batzuk hobetzen, baina zaila izan da ikasgai zehatzetan artikulu hauek sartzea. Zientzia politikoei buruzko batzuk lortu ditugu, hala ere. Beste artikulu batzuk ere egiteko aukera izan dugu Zuzenbide Fakultatean, batez ere ordenamendu juridikoari buruzkoak. Bigarren Hezkuntzako masterreko ikasleekin ere landu ditugu artikuluetakoz batzuk, bai EHU, bai UEUn.

HUHEZIKo ikasleekin ere artikulu hauetakoz batzuk lantzea lortu dugu. Bertan kazetaritzako ikasgaiak aukera handiak eman dizkigu gai zabalak planteatzeko, beste leku batzuetan akaso sartzen ez direnak. Ikasle hauek egindako ekarpena handia izan da, askok multimedia ere jorratu dutelako.

Lehiaketen bidez ere landu ditugu artikuluetakoz batzuk. Hain gai zabala izateak aukera eman digu lehiaketa ezberdinen bidez lanketa egiteko. Erantzun ona izan zuen 2019ko udan egin genuen Lau Gerra izeneko lehiaketak, non Lehen eta Bigarren Mundu Gerra, Espainiako Gerra Zibila eta Gerra Hotza landu ziren. 116 artikulu sortu ziren, 448 kilobyte gehitu eta 28.168 hitz. 2022ko urtarrilean historiari buruzko gaiak ere hobetu genituen, 108.726 hitz gehituz, eta 1.655 erreferentzia bibliografiko.

Artikuluetakoz batzuetan UEUren Buruxkak saileko jatorrizko testuak ere txertatu dira. Horretarako laguntza bat eman genuen, eta UEUk pertsona bat jarri zuen testu horiek erauzi eta artikuluetan txertatzen. Antzeko lana ere egin dugu Berriako infografiekin. Berriak milaka infografia askatu zituen, eta hemen aukera izan dugu hainbat artikulu hobetzeko.


Geografiari dagokionez, beste lehiaketa batzuk ere egin ditugu munduko herrialde eta hiri garrantzitsuenak hobetzeko, nahiz eta hauek ez dauden zehazki lotuta artikuluen zerrendarekin. Artikulu hauek ahalik eta onenak izatea ere erronka interesgarri bat da, eta curriculumaren parte ez izanda ere, maiz kontsultatzen diren gaiak dira ikasleen artean. 2022ko martxoan geografiari buruzko lehiaketa antolatu genuen, 1.142 kilobyte, 78.691 hitz eta 1.120 erreferentzia bibliografiko gehituz.

Ikusgelan saiatu gara historiari buruzko sail bat lantzen, baina oraindik ez du sail honek bidea aurkitu. Hala ere, Filosofia saileko zein Zortziko Txikian saileko bideoetako batzuek hobetu dituzte ere historia eta geografiako artikuluetakoz batzuk. Momentuz bost artikuluk dute bideoa, baina espero dugu hurrengo urteotan zerrenda honetako artikuluetakoz askok bidea izatea. Adibide gisa, “Argien garaia” artikuluan dagoen Descartes-
buruzko bideoa:

Filosofia [[aldatu](#) | [aldatu iturburu kodea](#)]

Francis Baconen enpirismoak eta René Descartes-
en filosofia arrazionalistak pentsamendu ilustratuaren oinarriak ezarri zituzten^[21]. Descartesek zientziak oinarri metafisiko seguruan eraikitzeko egin zuen saiakerak ez zuen hainbesteko arrakastarik izan; izan ere, eremu filosofikoetan aplikatutako zalantza-
metodoak adimenaren eta materiaren doktrina dualista ekarri zuen. Bere eszeptizismoa, John Lockeren Giza adimenari buruzko saiakerak (1690) eta David Humeren idazkiek findu zuten 1740ko hamarkadan. Bere dualismoa, Spinozaren Tractatus (1670) eta bere Etika (1677) lanetan materiaren batasunaren baleztapen zurrunik zalantza jarri zuen.


Jonathan Israelen arabera, lan horiek pentsamendu ilustratuaren bi lido desberdin ezarri zituzten: lehenik eta behin, barietate moderatua, Descartes, Locke eta Christian Wolf-
fen ondoren, erreformaren eta botere eta fede




Kultura zientifikoa

Kultura zientifikoan jasotzen diren elementuek aukera handia ematen dute artikuluen hazkuntza izugarria izateko: astronomia, osasuna, munduko arazo nagusiak. Eta nabaritzen da, hau baita, bere artikuluko kopuru txikiarekin, nabarmenen ehunekorik handiena ematen duena. Hazkuntza %658,91 izan da, hau da, edukia zazpi aldiz baino gehiago hazi da. Horren arduraren parte garrantzitsu bat Eguzki-sistemari buruzko artikuluek dute (Lurra izan ezik, “Biologia eta geologia” esparruan lantzen dela). Artikuluen batez besteko tamaina 7.230 bytetik 54.851ra igaro da, mediana 3.855etik 35.455ra igaro den bitartean. Batezbestekoa zein mediana guztietan altuena duen eremua da. Batez bestekoa hasierako mediana baino 2,42 aldiz handiagoa zen, eta amaierakoa soilik 1,55 aldiz.

Kultura zientifikoa arloko artikuluen tamaina tartekak
Sei hilabetero egindako neurketak



Grafikoan ikus daitekeenez, jada bi artikuluko baino ez daude 5.000 bytetik behera, baina gehiengoa, ia artikuluen erdia, 50.000 bytetik gorako eremuan dago. Hasieran talderik handiena 5.000-10.000 bytekoa zen, pixka bat igo zena hasieran, baina gero txikiago egin. Gaur egun bigarren talderik handiena 30.000 eta 40.000 byte arteko artikuluen taldea da.



ORES neurketak ere indartzen du irakurketa hau. Hasieran artikuluen ia erdia zen C baino hobea (izan ere, hemen planetak edo eguzki-sistema bezalako artikuluek zeuden, jada itxura ona zutenak), baina 2021etik ez dago C baino okerragoa den artikulurik. Gaur egun artikuluen %82 da B baino hobea, neurketa guztien artean onena, eta artikuluen %70 “ona” edo “nabarmen” gisa sailkatzen da.

Bereziki aipatu behar da astronomiari buruzko gaien sakonera. Eguzki-sistemako elementu nagusien inguruko artikuluek bildu eta tamaina estandarreko liburu batean maketatuko bagenitu, 500 orrialdeko tomo bat izango genuke.

50
artikulu

%659
hazkuntza

%100
C edo hobeto

Gaiak ez zuen aukerarik ematen unibertsitateko ikasleekin lantzeko. Aukera bakarra astronomiako gaietako batzuk fisikako ikasleekin lantzea izan da, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean, baina kontatuak izan dira. Jarduera gehienak wikilarien ekintzaren bidez egin dira, bereziki lehiaketak baliatuta. Astronomiari buruzko lehiaketa epikoa egin genuen 2018ko urrian, 29 artikulu berri, 1.026 kilobyte eta 53.764 hitzekin. Lehiaketa horretan egin genituen artikuluak gorakada itzela eman zioten proiektuari, eta lortu zuten jada finkatzea Eguzki-sistemari eta bere planetei buruzko artikuluen nabarmen izaera.

COVID-19 pandemiak ere ekarri zuen artikulu berriak gehitzea zerrendan, bereziki osasunari buruzkoak. “COVID-19 pandemia Euskal Herrian” artikulu garrantzitsua izan zen 2020an. “Medikuntzaren historia” artikulu nabarmena Zientziaren Filosofiako ikasleek landu zuten, EHUko HEFA fakultatean. Eta minbizi edo txerto artikuluek ere bultzada izan zuten ZTFko ikasleen aldetik. Aurrerapen teknologikoetako batzuk Ingeniaritza Fakultateko ikasleekin landu genituen, energia lantzen duten ikasgaiak. “Paper” edo “birziklatze” artikulua Gipuzkoako Ingeniaritzako ikasleek landu dituzte, Euskararen Arauak eta Erabilerak ikasgaietan.

Artikulu bakarrak dauka multimedia erantsia, “Eguzkia” artikulua, eta panel fotovoltaikoen inguruan EHUko Zientzia Astean egindako bideoa da:

Eguzkiaren kolorea zuria da, CIE kolore-espazio Indizea ia (0.3, 0.3) da, Eguzkia espaziotik edo zeruan oso goian ikusten denean. Emititzen dituen foton guztiak neurtzen badira, Eguzkiak foton gehien isurtzen ari den argi-espektroaren eremua berdea da^[28]. Eguzkia ortzemugatik gertu dagoenean, barreiatze atmosferikoak Eguzkiari kolore hori, gorri, laranja edo magenta ematen dio. Tipikoki zuria bada ere, pertsona gehienek mentalki Eguzkian pentsatu behar dutenean kolore horia esleitzen diote; honen arrazoa oraindik eztabaidagai dago^[29]. Eguzkia G2V izar bat da, non G2 horrek esan nahi duen gainazaleko temperatura 5.778 K (5.505 °C) dela eta Vk sekuentzia nagusiko izar bat dela^{[21][30]}. Eguzkiaren argiaren luminantzia batezbesteko 1,88 giga candela metro koadroko da, baina Lurraren atmosferatik ikusita 1,44 Gcd/m²era jaisten da. Hala ere, luminantzia ez da konstantea Eguzkiaren disko osoan zehar.



Unibertsoari buruzko artikulu gehienak nabarmen dira, eta horrek aukera ona ematen du ikasleen artean gaiak lantzeko. Eguzki-sistema eta bere elementu garrantzitsuenen zein Unibertsoa artikulua 545.000 bisita baino gehiago izan dituzte 2017tik, eta horrek erakusten du funtsezko artikulua direla.

Unibertsoa (23) [aldatu iturburu kodea]


Kontzeptu batzuk kendu dira, Fisika eta Geologia eremuetan ere lantzen direlako

- ★ Unibertsoa
- ★ Big Bang
- ★ Galaxia
- ★ Izar
- ★ Planeta
- ★ Zulo beltz
- ★ Materia ilun
- ★ Energia ilun
- 🕒 Izar eboluzio
- ★ Supernoba
- 🕒 Izarren nukleosintesi
- ★ Eguzki-sistema
- 📄 ★ Eguzkia
- ★ Merkurio (planeta)
- ★ Artizarra
- ★ Ilargia
- ★ Marte
- ★ Jupiter
- ★ Saturno
- ★ Urano
- ★ Neptuno
- ★ Planeta nano
- 🌐 ★ Satelite natural

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak


Informazioaren eta komunikazioaren teknologian artikulua sorta interesgarria lantzea lortu dugu, curriculumetik haruntzago doazen oinarrizko gaietan zentratuta. Ikuspegi orokorrago bat lortuta, informatikarekin zein gaur egungo teknologiarren munduarekin lotutako gaiak %235,18 handitu dira, hau da, hirukoiztu baino gehiago. Artikuluen batez besteko tamaina 7.256 bytetik 24.320ra igaro da, mediana 4.211etik 19739ra igaro den bitartean. Batezbestekoa hasierako mediana baino 1,66 aldiz handiagoa zen, eta amaierakoa soilik 1,33 aldiz, oso zenbaki orekatuak, hazkuntza parekatua eta artikulua guztietan izan denaren seinale.

Informazio teknologia arloko artikuluen tamaina tartekak
Sei hilabeteko egindako neurketa



Grafikan ikus daitekeenez, jada bi artikulua baino ez daude 5.000 bytetik behera, eta hasiera batean handiena zen 5.000-10.000 arteko tartea gaur egun ez da handiena, 10.000-30.000ko hiru tartek handiagoak baitira gaur egun. Beste eremu batzuetan bezala, azken urtean hazkuntza berezia izan dute 30.000 bytetik gorako artikuluek, urteko plangintzarekin bat.

ORES neurketan ere ikusten da artikulua ia guztiak direla jada C baino hobek. Nabarmendu behar da 2020an egondako kalitatearen ustezko jaitziera. Honek arrazoi bat du: une horretara arte 40 artikulua baino ez zeuden zerrendan, eta guztiek jada kalitate nahiko ona zuten. Urte horretan beste 30 sartu ziren, adituekin zerrenda eztabaidatu ostean, eta artikulua berri horien guztien kalitatearekin berriro kalkulatu.



Gaur egun artikuluen %74 B baino hobek dira, eta heren bat baino gehiago dira “ona” edo “nabarmen”. Egia da azken kategoria horretan gutxi daudela, baina artikulua onen kopuruak konpentsatzen du. Proiektua amaitzerako, ez dago C baino okerragoa den artikulurik.

90
artikulu

%235
hazkuntza

%100
C edo hobeto


Hazkuntza honen arduradun nagusiak EHUko Informatika Fakultatean daude. Bertan hasi genuen hezkuntza programa honekin, eta urteen poderioz etengabe hazi dira artikuluak. Eurekin ere landu genuen artikuluen zerrenda definitiboa, interesgarrienak izan zitezkeen gaiak sartuz. Ba egindako ikastaro orokorretan, zein ikasgai zehatz batzuetan sartuta, hazkuntza mantendu ahal izan da, dagoeneko artikuluak C baino hobeto izatea lortuz.

Artikulu gutxi batzuk Bilbo, Gasteiz zein Donostiko Ingeniaritza eskolekin landu dira, bertan ere badaudelako ingeniaritza informatikoa lantzen duten ikasleak, baina baita konponenteak edo bestelakoak egin ditzaketen ikasleak ere. Eta bultzada handia eman diete ere artikuluei irakasleetako batzuk, pentsamendu konputazionalari buruzko artikuluak, adibidez, hobetuz. Artikuluetan ikasleek egindako lanari gehitu behar zaio irakasleek artikuluak zuzendu eta hobetzeko izandako konpromiso jarraitua.

Lehiaketa bidez ere hobetu ditugu artikuluetako batzuk. Matematikarekin batera egin genuen “Teknologia eta matematika” lehiaketan, 2022ko azaroan, 766 kilobyte eta 43.300 hitz baino gehiago gehitu ziren, horietako batzuk informazio eta komunikazioaren teknologiei lotuta.

Multimedian ere egin ditugu aurrerapenak esparru honetan. Ikusgela proiektuan “Erronka digitalak” saila jarri dugu martxan Badalabekin batera. Une honetan zerrendako 90 artikuluetatik 5ek baino ez dute Ikusgelako bideoa, gaiak eztabaidarako sortuak direlako, baina ziurrenik kopurua handituko da hurrengo urteotan. Erronka digitalak sailean IKTen erabilera eta erronka sozialak batzen dira.

Erronka digitalak [aldatu ilurburu kodea]




Azkenik, eta gure gai zerrendarekin lotuta ez badago ere, Informatika Fakultatean bestelako gaiak ere landu ditugu bertako ikasleekin. Wikipedian berrikuntza teknologikoa bultzatzeko gaiak izan dira, maiz Wikidata erabilita. Ikasleek Euskal Herriko ibai guztien mapak egin dituzte, estazio meteorologikoen kokapena eta informazio klimatikoa igo dute edo euskal musikaren historiako diskoak Wikidatarekin lotu dituzte. Elkarlan honek aukerak zabaltu ditu ere Wikipedia beste modu batez erabiltzeko.


Hizkuntzak

Hizkuntzen eremua txikia da gure proiektuan, zaila baita bertan artikuluko kopuru handi bat ateratzea. Hobekuntza txikia izan duen eremua da, %129,99 handitu baita, bikoiztu eta pixka bat gehiago. Artikuluen batez besteko tamaina 10.833 bytetik 24.913ra igaro da, mediana 5.727tik 16.622ra igaro den bitartean. Batezbestekoa hasierako mediana baino 1,52 aldiz handiagoa zen, eta amaierako 1,50 aldiz, aurrekoarekin lotzen dena: artikuluko luze batzuk baditugu, media asko handitzen dutenak, baina ez dago kohesio handirik artikuluen tamainaren inguruan.

Hizkuntzen arloko artikuluen tamaina tartekak
Sei hilabetetero egindako neurketa



Grafikoak ere erakusten du joera hau. Artikuluen mugimendua txikia izan da, eta dagoeneko 2.500etik beherako bat ere ez dago, baina 3.000-4.000ko tartea da asko hazi den bat. Gaur egun hirugarren talderik handiena da, 5.000-10.000 eta handiena den 30.000-40.000 tartearen ostean. Artikulurik luzeenak ere izan dute gorakada bat, proportzioan nabarmena dena artikuluko gutxi izateagatik.



ORES neurketa ikusita ere berbera gertatzen da. Nahiz eta artikuluen gehiengoa C baino hobeak izan (%92), eta “Ona” + “Nabarmen” kategoriak %25 inguru izan, “Hasi” motakoek oraindik kopuru txiki bat dute, eta gutxi izanda ere, ez dugu lortu aukera baliatzea artikuluko are eta hobeak egiteko.

2022aren hasieran hobekuntza nabarmena egon zen, batez ere gaien aukeraketan ere aldaketa egon zelako. Hizkuntzaren inguruko artikuluko kompetentziekin lerrotatu ziren, eta gramatikako elementuak alboratu ziren, gaur egun DBHko ikasleek lortu behar dutena kontuan izanda. Artikuluko horiek aukera gehiago ematen dute prosarako, eta artikuluko luzeagoak egiteko.

50
artikulu

%130
hazkuntza

%92
C edo hobeto

Hizkuntzen eremua zaila izan da unibertsitate mailan lantzeko. Fakultate bakarra dago interes berezia izan dezakeena, Letren Fakultatea, eta artikuluak nahiko zabalak ziren horrelakoetan hasteko. Euskararen historiari buruzko batzuk lantzea lortu dugu izen bereko ikasgaiari, Euskal Filologian. Eta bertsolaritzari buruzko gaiak ere landu ditugu, han hemenka. Beste hizkuntzei buruzko artikuluak ez dira bereziki emankorrak izan ikasleekin lantzeko.

Hizkuntzen eremuan ere lan egin dugu UPPAren, Baionako campusean eskaintzen den Fonologia ikasgaiari, kontsonante eta bokalen artikulu batzuk eginez, eta euskal ahoskerari buruzkoak hobetzen. Eta Berritzegunean aritzen diren wikilariak ere aritu dira hizkuntza kompetentzien inguruko artikuluak hobetzen.

Euskararen jatorria artikuluak wikilari askoren artean landu zen, 300.000. artikuluak izateko helburuarekin. Artikulu landua da, nabarmen izendatua, eta beste inongo hizkuntzan existitzen ez dena. Euskara artikuluak ere bertatik jasotzen ditu batzuk, eta Wikipedian artikulurik bisitatuenetako bat da, nahiz eta akatsez hala izan (jendeak Googlen bilaketa egiten du "wikipedia euskara" eta artikulu horretan amaitzen du).

Multimediari dagokionez, Ikusgela proiektuan badaude euskal literaturari buruzko bideoak, euskararen historia ere kontatzen dutenak. Bideo hauek txertatu ditugu, eta gaitegiko 25 artikulutik seik dagoeneko badute Ikusgelako bideo bat txertatuta.

Euskara (25) [[aldatu iturburu kodea](#)]

- [Euskara](#)
- [Euskaltzaindia](#)
- [Euskararen erabilera](#)
- [Euskalgintza](#)
- [Euskal gramatika](#)
- [Euskal aditz](#)
- [Euskal deklinabidea](#)
- [Euskal adizki](#)
- [Euskalki](#)
- [Euskararen jatorria](#)
- [Euskararen historia](#)
- [Euskara eta hizkuntza erromanikoak](#)
- [Euskararen debekua](#)
- [Euskal Pizkundea](#)
- [Sabindarren euskara garbia](#)
- [Euskaltzaleen Biltzarra](#)
- [Euskaltzaleak](#)
- [Euskara frankismoan](#)
- [Elbira Zipitria](#)
- [Ikastola](#)
- [Bigarren Euskal Pizkundea](#)
- [Euskara batua](#)
- [Euskararen normalizazio](#)
- [Euskararen Foru Legea](#)
- [Euskaraldia](#)

Etorkizunean, sail honetako bideo gehiago egiteko asmoa dugu, eta horrek lagunduko du euskararen eta euskal kulturaren historiari buruzko artikuluak multimediaren esparruan hobetzen.

Azkenik, Ahotsak.eus ekimenarekin landu genuen herri bakoitzeko euskalkiari buruzko bideoak txertatzea. Proiektu honek ez ditu berez hobetzen xede-artikuluak, baina aukera ematen du euskararen ezagutza handitzeko, eta euskalkien zein ahozkotatasunaren gaiak lantzeko. Bideo hauek dagokien herrietan eta euskalkien artikuluetan txertatuta daude.

Media "Videos uploaded within the Basque Education program agreement with Ahotsak about Basque language variants" kategorian

Ondorengo 200 fitategiak kategorian honetan daude, eta guztira 334 fitategi dira kategorian honetan.


(aurreko orrialdea) (hurrengo orrialdea)

Abadiako Jose Antonio Arriola webm 3m 8s, 640x360, 13,94 MB	Abadiakotako Arsa Arriola webm 2m 40s, 853x480, 12,22 MB	Abuzurganako Izabura webm 2m 53s, 683x512, 21,25 MB	Adunako Maria Luisa Zabala webm 48s, 853x480, 3,61 MB	Aharabako Mares Larrañeta webm 3m 1s, 640x360, 9,11 MB	Aharabako Jean-Pierre Urtiaga webm 2m 24s, 1.648x928, 34,53 MB	Aizko Maresno Anuti webm 1m 28s, 853x480, 7,89 MB
Aharabako Leire Barber eta Samuel Biscay webm 1m 25s, 640x360, 6,07 MB	Aharabako François Bapstia webm 1m 32s, 1.648x928, 8,4 MB	Azamizabako Jose Etxabe webm 3m 45s, 910x512, 22,98 MB	Ajangizko Miriam Oñativola 2 webm 1m 25s, 853x480, 11,49 MB	Ajangizko 011 webm 1m 25s, 853x480, 9,88 MB	Aharabako Mari Carmen Irujo webm 4m 33s, 850x480, 24,2 MB	Aizabako Paktia Peltagariako webm 2m 48s, 853x480, 8,79 MB


Literatura

Literatura artikulua asko dituen eremuetako bat da, 300 guztira. Bi zatitan dago banatuta, literatura unibertsala batetik, euskal literatura bestetik. Kasu bakarra da Heziberri curriculum dekretua albo batera utzi eta bestelako gaiak landu direnak, batez ere dekretuak ez zuelako artikuluen zerrenda osatzeko balio. Horrela, kanpoko bi aditurekin landu dugu artikuluen zerrenda: Susa argitaletxea euskal literaturentzat eta Donostiako liburuzainak literatura unibertsalarentzat. Hobekuntza ez da izan oso handia, %131,87 handitu baitira, bikoiztu eta pixka bat gehiago. Artikuluen batez besteko tamaina 6.541 bytetik 14.301era igaro da, mediana 3.046tik 8.714ra igaro den bitartean. Eremu honetan artikulua luzeak egiteko dagoen zailtasuna ebidentea da, artikuluetako asko obra literario oso zehatz (eta maiz laburren) menpe baitzegoen.

Literatura arloko artikuluen tamaina
Sei hilabetero egindako neurketa



Grafikoan ikusten den bezala, proiektua hasi genuenean artikulua asko zeuden egin gabe, hori baitzen talderik handiena. Ondotik, 5.000-10.000 tartea zetorren. Proiektua amaitzerakoan oraindik ere sortu gabeko 10 artikulua daude, guztiak euskal literatura eremukoak. Ez dago, hala ere, 2.000 bytetik beherako artikulurik, eta asko handitu dira 15.000 bytetik gorakoak, ia eremu guztietan. Talderik handiena, hala ere, 5.000-10.000 artekoak dira, euskal literaturako lan batzuen inguruko azalpena askoz gehiago luza ezin zitekeelako, batez ere.



Artikulu nabarmenduak gutxi dira oraindik, eta B baino hobeak %30 baino ez, hasierako %20rekin alderatuta, hazkuntza oso txikia. Hala ere, “Hasi” baino txikiagoak direnak proiektua abiatu genuenean bi heren ziren, eta gaur egun %20 inguru dira, hau da, erdiko esparruan hobekuntza oso handia eman da. Oraindik ere sortu gabeko artikulua ditugu eremu honetan, eta baliteke horiek sortzeko ezintasunak denboran jarraitzea, inork oraindik idatzi ez duen euskal literaturaren historiako gai sakonak baitira.

300
artikulu


%132
hazkuntza

%77
C edo hobeto

Hizkuntzen esparruan bezala, literatura lantzeko ezintasuna handia izan da, leku bakarra dagoelako hau egin daitekeena, Letren Fakultatea, eta ez dugulako bertan aurkitu bazkiderik horrelako lanari ekiteko. Euskal literaturako gai gehienak wikilariak landu dituzte, eta lehiaketak egin ditugunean ere emaitzak txikiak izan dira. Literatura unibertsalean hobekuntzarik handiena Donostiako liburuzainek egin dute, tarte batez ostiralero biltzen baitziren literaturari eta idazleei buruz idazteko.

Euskal Literaturari dagokionez, esan bezala Susarekin batera eraiki genuen curriculumean zegoena baino zerrenda luzeago bat. Zerrenda hau DBHko ikasleek lantzen dutena baino askoz anbizio handiagokoa da, eta “euskal literaturaren entziklopedia” baterako gaien zerrenda izango litzateke. Gaietako batzuk lantzea oso zaila da (“euskal literatura erromantikoa” edo “euskal literatura Espainiako Gerra Zibilean”). Beste batzuen zailtasuna artikulu labur batetik haratago joatea da (Santxa Otxoa Ozaetakoa edo Joana Butroekoa). Hala ere, lortu ditugu gaietako batzuetan hobekuntzak Ikusgela proiektuari esker. Zerrendako 150 artikuluetatik 20k dute une honetan Ikusgelako euskal literatura saileko bideoren bat.

Euskal kultura [aldatu iturburu kodea]



Bernart Etxepare eta XVI. mendeko literatura



Axular eta XVII. mendeko literatura



Txomin Agirre eta XIX. mendeko literatura



Txillardegia eta XX. mendeko eleberrigintza



Gabriel Aresti eta XX. mendeko olerkigintza



Mariasun Landa eta XX. mendeko haur eta gazte literatura



Xalbador eta XX. mendeko bertsolaritza



Ez Dok Amairu eta XX. mendeko kantagintza

Literatura unibertsalaren esparrua guztiz bestelakoa da. Liburuzainek aukeratutako idazleekin hornitu zen, euskarara ekarritako libururen bat izateko irizpidearekin. Hala ere, unibertsitatean ez dugu lortu artikulu horiek joratzeko irakaslerik, literaturari buruzko ikasgai gutxi batzuk badiren arren. Liburuzainen eta wikilarien esku jartzean lortu dugu artikulu batzuk txukunak izatea, baina ez dugu hezkuntza komunitatearekin gaia landu. Izan dira gutxi batzuk ikasleek landutakoak, bereziki Bigarren Hezkuntzako Masterreko ikasleak, bai EHUUn zein UEUn. Baina artikulu kopuru handiarekin, ezin lortu igoera nabarmenik. Artikuluetako batzuk ere landuko ditugu Literatura Unibertsalari buruzko sail berri batekin Ikusgelan, baina hori 2024an izango da, nahiz eta 2023an egon garen gaia lantzen.


Azkenik, izan da ezusteko kolaboratzaile bat artikuluetako bat lantzeko. Biblia gaitegian dagoen artikulua izanik, HUHEZIKo ikasleek landu zuten gaitetik. Baina euskarazko Biblia libre bat igotzeko beharra genuen, maiz egiten diren erreferentziatarako. Dagoeneko existitzen den biblija.net pribatuko testuaren baimena lortu genuen, Wikitekara igo eta EHUKo Informatika Fakultateko ikasle batek programa bat landu zuen bertset guztiak identifikatzeko. Horrela, euskarazko Wikipedia da bakarrenetakoa erreferentzia biblikoak testu libre batera egin ditzakeenak, une honetan.

Ekonomia eta ekintzailletza


Ekonomia eta ekintzailletzako gaitegia artikulu laburrez josita zegoela hasi genuen. Gaitegiak idazteko ere konplexuak diren gaiak ditu, maiz enpresaren kudeaketarekin lotzen direnak eta izaera praktikoa dutenak. Hobekuntza izan dugu esparru honetan, %284,53 handitu baitira, ia laukoizteraino. Artikuluen batez besteko tamaina 3.666 byte zen hasieran, txikienako bat, eta 14.097ra igaro da, mediana 874tik (txikiena, emakumea eta generoa kontuan hartu gabe) 10.531ra igaro den bitartean. Igoera oso orekatua izan da, eta orekarantz ere jo du, hasierako batezbesteko/mediana ratioa 4,19 baitzen eta gaur egun 1,34 baita.

Ekonomia arloko artikuluaren tamaina

Sei hilabetero egindako neurketa



Artikuluaren tamainaren grafikoak ere erakusten digu aldaketa hau nolakoa izan den. Hasieran sortu gabeko artikulu batzuk bagenituen, baina tamainarik handiena 500 eta 1.000 byte artekoa zen, artikulu oso laburrak, maiz paragrafo labur bakarrekin, definizio hutsak. Artikulu luzeak ere oso gutxi ziren. Denborarekin ikusi da nola txikienak desagertu diren (jada ez dago 2.000 bytetik beherako artikulurik) eta handienak luzatzen joan diren, 10.000 eta 40.000 arteko artikuluaren hazkuntza nabarmenarekin sei hilabe bakoitzean. Bistan da ere talderik handiena ez dela 5.000-10.000 artikuluaren bueltan dagoena, eta hori nahiko egonkor mantendu dela denborarekin.



Artikuluaren kalitateari begiratzen badiogu, hasieran artikuluaren %70 inguru kalitate eskasekoak ziren, C mailatik beherakoak edo existitzen ez zirenak. Artikulu laburregien bilduma nabarmena genuen. Denborarekin horiek gutxitzen joan dira, modu pausatuan, eta gaur egun ez dago zirriborrorik. “Hasi” motakoak oraindik ere %22 inguru dira, baina B maila baino hobekak direnak %40 dira, igoera oso nabarmena. Ez dugu lortu, hala ere, artikulu nabarmenik izatea ia, nahiz eta baziren gai batzuk aukera eman zezaketenak. Edonola ere, C maila baino hobekak dira dagoeneko artikuluaren %78, marka ona kontuan hartzen badugu gaitetako batzuk oso teknikoak zirela.

105
artikulu

%285
hazkuntza

%77
C edo hobeto

Artikuluak lantzeko bazkide nahiko izan ditugu unibertsitatean. EHUko Bizkaiko eta Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa fakultateetan lanketa egin ahal izan dugu, batez ere Euskararen Arauak eta Erabilera izeneko ikasgaietan, baina baita beste batzuetan ere. Ikasleek enpresa zehatzen inguruan interes handiagoa izan dute ekonomiako gai nagusien inguruan baino, baina artikulu kopurua asko ez zenez, bazegoen zer eta nola landu. Gainera, artikuluetakoz batzuk nabarmen hobetzearekin batera, zerrendan ez zeuden azpigiak ere landu dira, sakonera gehiago gehituz.

HUHEZIKo ikasleek ere landu dituzte gaietako batzuk, bereziki ekonomia jardura orokorreko dagozkionak. Sektore ekonomikoetan lanketa, adibidez, posible zen ekonomiako gaiak zehazki kontrolatzen ez dituzten ikasleetatik kanpo ere.

Bilatu dugu ere beste bazkide bat artikuluak landu ahal izateko, nahiz eta emaitzarik ez den lortu. Ekonomiaren inguruan dabilzan eragile nahiko daude Euskal Herrian, batez ere ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan. Horiekin lanketa egin dugu hiru urtez, boluntario batzuk lortzen artikuluak hobetzeko, baina, tamalez, jarraikotasun handirik izan ez dutenak.

Multimediari dagokionez, Lanbide Heziketako lan-orientazio eta formazio irakasleekin lana egin dugu, gaietako batzuk bideoan eskaini ahal izateko. Horrela jai da Ikusgelako “Ekonomia” saila, hainbat bideo eskaintzen dizkiguna. Hamaika artikulu daude, une honetan, Ikusgelako bideoen bat dutenak, gure 105 artikuluaren zerrendatik, eta hurrengo hilabeteetan denboraldi berriari ekingo diogu, beste hainbeste artikulu hobetzeko aukerarekin.

Ekonomia [aldatu iturburu kodea]




Artikuluak ez bezala, bideo hauen helburua oso praktikoa da. Zuzenean gai zehatz bat hartu eta horren lanketa egiten da, youtuber formatuan. Bideoak artikuluetan txertatuta daude, eta maiz lantzen dituzte gure zerrendatik kanpo dauden beste batzuk ere. Bideoen indargunea da LHko ikasleentzat pentsatutako edukiak direla, baina publiko orokorrak ere kontsumitu ahal dituenak.

Kultura klasikoa


Kultura klasikoa ere gaitegi zabalekoa da, eta hasieran artikuluen labur asko genituen, batez ere greziar eta erromatar mitologiari dagozkionak. Hobekuntza neurritzkoa izan da kultura klasikoaren esparruan, %229,13 handitu baitira, hirukoiztu baino zerbait gehiago. Artikuluen batez besteko tamaina 5.529 byte zen hasieran, eta 18.208ra igaro da, mediana 2.370tik 8.915ra igaro den bitartean. Igoera ez da besteetan bezain orekatua izan, hasierako batezbesteko/mediana ratioa 2,33 baitzen eta gaur egun 2,04 baita. Hau da, esparru honetan ditugun artikuluen oso luze batzuek jarraitzen dute batez besteko tamaina asko mugitzen, artikuluen laburragoak hainbeste hazi ez diren bitartean.

Kultura klasikoa arloko artikuluen tamaina

Sei hilabetero egindako neurketa



Grafikoan ikusten den bezala, sortu gabeko artikuluen tamaina nahiko zuzenak izan dira esparru honetan, eta oso laburrak ziren beste batzuk, batez ere greziar jainkoen eremuan. Proiektuaren hasieran lortu genuen jada sortu gabeko artikulurik ez egotea, eta 1.000tik beherakoak laster desagertu ziren. Proiektuaren amaieran 2.000tik beherako artikulurik ez dago, eta 5.000-10.000 artekoak asko hazi baziren ere, ondoren murrizten joan dira, artikuluen luzeagoen mesedetan. Beste sailetan ez bezala, ez dira hainbeste 30.000tik gorakoak ere, baina badaude gutxi batzuk lortu dutenak, bereziki Erromatar Inperioari buruzko artikuluen edo euskal mitologiari buruzkoak.



Artikuluaren kalitateari dagokionez, hasieran artikuluen %75 baino gehiago kalitate eskasekoak ziren, eta oso gutxi zeuden goiko esparruan. Proiektuak aurrera egin ahala desagertzen joan dira artikuluen eskas horiek, eta amaitzean “Hasi” motakoak %13 baino ez ziren. C mota baino hobekak ziren %87 inguru eta B baino hobekak ere artikuluen herena.

Artikulu nabarmenen kopurua ere ondo hazi da; bazegoen aukera beste artikuluen luze batzuk ere egiteko, baina ez dugu aukera hori baliatu.

100
artikulu

%229
hazkuntza

%87
C edo hobeto

Aurreko esparruetan bezala, hemen oso zaila da unibertsitateko ikasleekin gaiak lantzea. Letren Fakultateko historiako ikasleekin aukera izan dugu gai batzuk lantzeko, zeharka bada ere. Batez ere Antzinako Erromari buruzkoak hedatzeko aukera izan dugu. Mitologiari buruzkoak, ordea, ia ezinezkoa izan da.

Donostiako eraikuntzaren ingeniartzako ikasleek antzinako arkitekturari buruzko artikulu batzuk ere landu dituzte, eta HUHEZIKo ikasleek beste artikuluren bat hobetu dute.

Hoberen funtzionatu dutenak lehiaketak izan dira. 2019ko irailean lehiaketa antolatu genuen kultura klasikoko zein filosofiako gaiak hobetze aldera. Parte-hartzea txikia izan bazen ere, 202 kilobyte eta 14.917 hitz berri gehitu ziren artikulu hauetara. Lehiaketatik kanpo ere hobetu den artikulu bat Erromatar Inperioa izan da, une honetan Wikipediako hizkuntza guztien artean bertsiorik luzeena da, 28.500 hitz eta 280.000 bytekin.

Irulegiko Eskua aurkitzeak ere aldaketa nahiko ekarri ditu wikilariak Euskal Herria eta antzinako erromari buruz egindako artikuluetan. Euskal Herrian bizi ziren leinuak, Ager eta Saltus kontzeptuak eta artikulu orokorragoak hobetu dira, eta dagoeneko corpus interesgarri bat dago gaiaren inguruan.

Proiektuan sartutako azken artikuluan Euskal Mitologia izan zen. Gai hau ez da agertzen Heziberri dekretuan, baina beste mitologia batzuk lantzen ari ginen moduan, euskal mitologia ere lantzea posible zela argi zegoen. Une honetan artikulu luzea eta mamitsua da, eta euskal mitologiari buruz irakurtzeko sareko erreferente nagusia. Akaso, hemen eman dugu multimediaren erabileran aurrerapauso interesgarriena, Adimen Artifiziala erabili baitugu ilustrazio libreak sortu ahal izateko. Izan ere, euskal mitologiaren esparruan ez dago ilustrazio zaharririk, eta gaur egun egindako guztiek copyrighta dute. Horrela, AA erabilia lortu dugu corpus interesgarri bat sortzea, beste Wikipedia batzuetan ere kopiatzen ari direna.



Amalur



Eguzki amandrea




Ilazki



Urtzi



Mundakako printzesa



Jaun Zuria

Jentilak [aldatu | aldatu iturburu kodea]


Sakontzeko, irakurri: «Jentil»



Olentzero.



Mairuak.




Basejaun.



Martn Txiki, jentilen
aurrean.



Ujanko.




Tartalo begibakarra.

Azkenik, Ikusgela proiektuaren baitan, Literatura Unibertsala lantzen ari gara. Lehenengo bi atalak, 2024an estreinatuko ditugunak, greziar literatura klasikoa landuko dute, literatura esparruan zein artikulu sorta honetan eragina izango duena.


Filosofia

Filosofian lortutako emaitzak ikusgarriak dira. Proiektua hasi genuenean artikulua sorta laburra genuen, curriculumean islatzen den eduki gabeziaren ondorioz. Ipar Euskal Herriko filosofia irakasleekin batera bertako curriculumeko edukia ere sartu genituen, horrela Euskal Herri osoko bigarren hezkuntzako ikasleek dituzten gaiak sartuta. Alboan utzi genituen, hasiera batean, Batxilergoan ikasten diren autoreak. Artikuluen batez besteko tamaina 3.161 byte zen hasieran, eta 26.833ra igaro da, %748,8; hau da, edukia zortzi aldiz handiagoa da orain. Mediana 885 byte eskasetik 27.319ra igaro da bitartean. Igoerarik ikusgarrienetako bat da, baina gainera oreka handikoa, bakarra baita mediana batez besteko tamaina baino handiagoa dena. Ratioa hasieran 3,57 baitzen eta gaur egun 0,98 baita. Hau da, artikulua guztiak igo dira, aldi berean, tamainaz.

Filosofia arloko artikuluen tamaina
Sei hialbetero egindako neurketa



Artikuluen tamaina aztertuta, ikusten dugu hasieran bagenituela sortu gabeko artikulua batzuk, eta 1.000 byte baino laburragoak zirenek osatzen zutela talderik handiena. Artikulu hauek definizio bat baino ez ziren. Proiektuak aurrera egin ahala artikulua horiek desagertzen joan dira, eta gaur egun ez dago artikulurik 2.000 bytetik behera. Beste aldean, 5.000 eta 10.000 byte artekoak hasieran ugaritu ziren, baina desagertzen joan dira, eta gaur egun talderik handiena 20.000-30.000 artekoak dira (hortik mediana ere hor egotea) eta horiek baino handiagoak dira asko.



ORES kalitate neurketari erreparatuta, hasieran sortu gabeko eta zirriborroak zirenak artikuluen laurdena baino gehiago ziren, eta B + “Ona” %8 baino ez, atal guztietan emaitzarik txarrenetako bat. Pixkanaka artikulua hobetuz joan gara, eta proiektua amaitzerako ez dago zirriborrorik, hasi motakoak %11 baino ez dira, eta B baino hobeak artikuluen bi heren dira. Artikulu onak, gainera erdia baino gehiago dira, eta gutxi batzuk ere badira nabarmen.

75
artikulu

%745
hazkuntza

%88
C edo hobeto

Hazkuntza izugarri hau ez da kasuala. EHUko HEFA fakultateko filosofia ikasleak, batez ere, aritu dira artikulu hauek hobetzen. Eta, ikasleen artean, bi ikasgai izan dira nabarmenak: “Filosofiarako sarrera” eta “Zientziaren Filosofia”. Bi ikasgai horietan filosofiako gaiak landu ditugu, lehenengoan bereziki Ipar Euskal Herriko ikasleek behar dituzten gaiak. Urtez urte egin duten ekarpenarekin lortu dugu 30.000 bytetik gorako hainbeste artikulu izatea.

Fakultate bereborean Bigarren Hezkuntzako Masterra eskaintzen da, eta bertako ikasle batzuek ere landu dituzten filosofiako oinarrizko gai batzuk. Gairen bat ere HUHEZIKo ikasleek hartu dute, bereziki erlijioei lotutakoak.


Wikilariak ere buru-belarri aritu dira gaietako batzuk hobetzen. Judaismo, Filosofia edo Zuzenbide bezalako artikuluak orain nabarmen dira, dagoeneko ondo zegoena borobildu dutelako azken urtean. Artikulu hauek sarbidea ematen diete beste gai askori, eta horiek ere txukuntzea izaten da helburua. Horrela, ikasleek ez dituzte soilik zerrendan zeuden artikuluak hobetu, baizik eta euren arloan oinarritzkoak diren beste asko.

Eta hobetu dituzten horien artean badira ere zerrendan ez zeuden filosofoak. Filosofo askoren bizitza eta pentsamenduari buruz idatzi dute, horietako batzuk nabarmen. Pentsamendu filosofikoko hainbat erronka eta eztabaiden inguruan ere artikulu bikainak idatzi dituzte.

Filosofoeekin hasita, Ikusgela proiektuak ere horretan jarri du indar handia, Joxe Azurmendi Katedraren eta Agora Elkartearekin batera egindako bere lehenengo sailean, dagoeneko bi denboraldi dituen, eta hirugarrena bidean. Bideoak ikusien artean daude proiektuan, eta beste hizkuntza batzuetan ere itzultzen ari dira, duten kalitatearen erakusgarri.


Bideotako batzuk ere zerrendako artikuluak hobetzera datoz. Une honetan zerrendako bost bideoak dute Ikusgelako bideoaren bat barneratuta.

Filosofia [aidatu iturburu kodea]



Gaur egungo eta etorkizuneko dilema digitalak, begirada filosofikoki zerrenda diranokoa da hau, humanismo digitalaren sarrari filosofiko (humanismo) eta soziologikoki (digitalizazio) abiatu, lanketa filosofiko eta tekniko behar diren...

- Dilemak [aidatu iturburu kodea]
- Mende teknologikoa
- Algoritmoak
- Lortu algoritmoak
- Hemi Jirkualte
- Giza-eraren eraketa
- Zer da eraguzia?
- Komunikazioaren teknologikoak
- Espazio-denbora konfigurazio berria
- Teknologien Intentionalitatea




Azkenik, HUHEZIKo irakasleekin egindako kolaborazioa ere aipatu nahi dugu, Humanitate Digitalen bekari esker abiatu zen bi(di)girada proiektuarekin. Proiektu honek filosofia irakasleak gaur egungo mundua eta filosofo historikoak batzen lagundu nahi ditu, artikulu zehatzetan galderak jarrita, eta unitate didaktiko batekin. Proiektuak aukera ematen du, berriro ere, hezkuntza eta Wikipedia hobeto lotzeko.

Plastika eta ikus-entzunezkoak


Plastika eta ikus-entzunezkoak ere eremu konplexua da, zerrendan zegoen artikuluko kopuru handiagatik, zein beraiek lantzeko dauden aukera eskasengatik. Artikuluen batez besteko tamaina 5.634 byte zen hasieran, eta 22.594ra igaro da, %301eko igoera; hau da, edukia lau aldiz handiagoa da orain. Mediana 2.877 byte zen hasieran eta 5.573era igaro da, bitartean. Ratioa hasieran 1,96 zen eta gaur egun 4,05 da, eremu guztien artean igoerarik desorekatuena duena.

Plastika eta ikus-entzunezkoak arloko artikuluen

Sei hilabeteko egindako neurketa



Grafikoak ere erakusten digu igoera ez dela besteetan bezain orekatua izan. Hasieran genuen talderik handiena sortu gabeko artikuluen %10. Ondoren zetorren 5.000 eta 10.000 byte arteko taldea, eta gero artikuluko labur pila bat zeuden. Gaur egun ez dago 2.000 byte baino txikiagoa den artikulurik, baina 2.000 eta 2.5000 arteko taldetxo bat badago, nahiko nabarmena, eta ez dugu lortu ere artikuluko guztiak egitea. Azken urtean igoera nabarmena izan dute 30.000-40.000 tarteko artikuluek, horretan egindako esfortzu bereziaren ondorioz, baina artikuluko asko daude erdiko eremuan zein laburrenean.



Kalitate neurketak ere erakusten digu panorama berbera. Sortu gabeko artikuluek dituen eremuetako bat da, gehienak arteetakoak. Hasieran ia bi heren ziren C maila baino txikiagoak, eta gaur egun heren batera jaitsi da, baina oraindik maila horretako elementu erlatibo gehien dituen eremua da. Artikulu onenak ia laurdena dira, eta heren bat B mailakoak ere kontatzen baditugu, baina hazkuntza motela da, eremu guztietan egondako okerrena.

Artikulu oso luze batzuek konpentsatu dute igoera gehiena, laster ikusiko dugunez.

150
artikulu

%301
hazkuntza

%69
C edo hobeto

Zailtasunak handiak dira, fakultate pare bat baino ez daudelako gai hauek lantzeko modukoak, eta bertan ikasleak eta irakasleak topatzea oso zaila delako. Lan egin duen fakultate nagusia EHUko Arte Ederren fakultatea izan da, baina bertan goiko mailetan euskarazko eta gaztelaniazko ikasleak nahasita daude, eta ikasgai asko ez dira euskaraz eskaintzen, oraindik zailago eginez lanketa. Euskararen Arauak eta Erabilerak ikasgai oso ikasle gutxik hartzen dute parte, eta urtero gehienez hiruzpalau artikulu hobetu daitezke horrela.


Zientzia Politikoen eta Komunikazioaren fakultatean ere aukera izan dugu artikuluetakoz batzuk lantzeko, marketinari lotuta, baina horiek ere oso gutxi dira zerrendan. Eta, beste eremu batzuetan bezala, HUEZIKO ikasleekin ere izan dugu aukera artikuluetakoz batzuei hobekuntza egiteko.

Hirigintzako elementu batzuk agertzen dira ere zerrendan, eta aukera izan dugu EHUko Arkitekturako ikasleekin behin lantzeko, baina ikastaro horrek ere ez zituen espero genituen emaitzak eduki.

Kanpo bazkideak lortzen ere saiatu gara, arrakasta gutxirekin. Euskal artearen inguruan lanketa egin dugu Oteiza Museoarekin, baina horrekin pertsona bakarraren artea hobetu dugu, eta, gainera, zerrendan ez zegoena. Zerrendako elementuen zati handi bat euskal zinemagintzaren historia da. Artikulu horiek baditugu, baina ez dute aukerarik ematen hazkuntza handirako, dagoeneko landuta daudelako, erreferentzia gehiago ez daudelako, eta copyright estatusarengatik ezin direlako elementu gehiago lortu. Kanpo bazkideen artean proiektura batzen saiatu gara Euskal Filmoteka eta Zinemaldia, baina ez dute euskal zinemaren historiaren kontakizuna hobetzen laguntzeko interesik izan.

Hobekuntzarako aukeretako bat Etor-Hostoa argialetxeak egindako “Euskal Herria enblematikoa” liburuak izan dira. Horiek guztiak libre jarri zituzten, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, eta wikilariak testu horiek erabili dituzte artikuluak sortzeko. Artikulu oso luzeak egin dira (maiz, entziklopedia bateko tomo bat bezain luzeak), eta horrek asko hobetu du ehuneko orokorra, baina artikulu gutxi batzuk izan dira eta, gainera, horiek moldatzen eta egokitzen lana hartu behar da ondoren, estiloa ez zelako berbera. Artikulu horietako bat “Euskal Herriko historiaurrea” da, oraindik hainbat hobekuntza behar dituena euskarazko Wikipediako kalitate estandarretara moldatu ahal izateko, eta une honetan testu luzeegia eskaintzen duena. Testu horien zati batzuk ere beste artikulu batzuetan erabili dira, adibidez, “Labar artea”, oinarrian testu berberaren zati bat errepikatzen duena.


Ekarpen positiboetan, zerrendan agertzen diren Euskal Herriko eraikinak daude. Horien inguruko informazioa hobetu dugu, eta gainera irudiz ere hornitu ditugu, WikiLoves Monuments lehiaketak baliatuz. Lehiaketa horiek gure ondasunen argazkiak egiteko balio dute, eta artikuluak hornitzeko. Noski, zerrendan aipatzen ez diren milaka eraikin ere badira, baina nazioarteko lehiaketa horren bidez lortu dugu ehunka eraikin hobeto dokumentatzea.




Musika, dantza eta antzerkia

Aurreko gaiarekin gertatzen den bezala, musika, dantza eta antzerkia ez dira eremu errazak hazkuntzarako zein unibertsitateekin lan egiteko. Artikuluen batez besteko tamaina 4.961 byte zen hasieran, eta 13.984ra igotzea lortu dugu, %181,88ko igoera. Edukia hirukoiztea ez dugu lortu, nahiz eta igoera ez den txikia izan. Mediana 3.301 byte zen hasieran eta 9.476era igaro da proiektuaren amaieran. Ratioa hasieran 1,50 zen eta gaur egun 1,48 da, beraz berdintsu mantendu dugu proportzioa, hazkuntza eman arren.

Musika, antzerkia eta dantza arloetako artikuluaren tamaina
Sei hilabeteko egindako neurketa



Grafikoan ikusten da 2.000 bytetik beherako artikulurik jada ez dagoela, eta sortu beharreko artikulurik guztiak ere sortu direla. Erdiko eremuan mantendu dira batzuk, baina 5.000-10.000 tartean besteetan bezala hasieran handitu ziren, eta gerora murrizten joan dira, artikulurik luzeagoen mesedetan. Bitxikeri gisa, 40.000-50.000 tartean artikulurik ez duen eremu bat da, luzeagoak badira, baina hor igoera nabarmenena 30.000-40.000 tartean eman dugu, askoz gehiago handitu gabe.



Kalitatearen neurketan ere ikusten da joera hori: hasieran artikulurik eskasak erdia baino gehiago ziren, eta soilik %15 ziren B edo “Ona” (“nabarmenik” ere ez zegoen). Denborarekin behekoak gutxitzen joan gara, baina besteetan izandako abiada bizirik ez dugu eduki. Jada ez dago zirriborrorik, eta C maila baino hobek direnak %82 dira, baina B eta edo hobek direnak ez dira laudenera iristen. “Hasi” motako artikulurik kopuru bat badugu oraindik.

150
artikulu

%182
hazkuntza

%82
C edo hobeto

Artikuluen analisia egiten badugu, ikusiko dugu 50 artikulu orokorrak direla, musika eta antzerkiari buruzko gaiak aurkeztuz, eta beste 100 euskal curriculumaren zehaztasuna direla, hau da, euskal musikari lotutakoak. Horrek zailtzen du artikuluen luzera handitzea, artikuluetako batzuk euskal musikariaren inguruan izanda zerotik sortu behar direlako, itzulpenarako aukerarik gabe. Horrela, egindako igoera uste baino hobea dela ikusten dugu, baina ez dugu aukera handirik artikulu nabarmenak egiteko, kasu zehatz batzuetan izan ezik.








Gainera, Euskal Herrian ez dago hau landuko duen unibertsitateirik. Saiakera egin dugu Musikenerekin harremana egiten, baina euskarazko teoria lantzea, eta zehazki euskal musikari buruz egitea oso urrun geratzen zaien zerbait da. Irakasle eskoletan ere ezinezko egin zaigu, bertan lantzen dutena jada duguna baino txikiagoa baita.

Lortu dugu gaietako batzuk lantzea HUHEZIKo ikasleekin, baina wikilariak izan dira hemen esfortzu handiena egin dutenak. 2018ko otsailean lehiaketa bat antolatu genuen artikulu hauek hobetzeko, emaitza oso onekin: 139 artikulu sortu ziren, 588 kilobyte gehitu eta 36.404 hitz berri.

Hirugarren eragileekin egindako lanketak ere eman ditu bere fruituak. Nabarmenena Oiartzungo Soinuenea museoarekin egindakoa da. Euskal musikako instrumentuen irudi eta audioak igo ziren, eta Txikipediarako artikulua osatu ziren eurek zuten materiala askatuz. Gainera, flauten inguruko informazioa nabarmen hobetu zuten.

Media "Videos uploaded within the collaboration with Soinuenea" kategorian

Ondorengo 10 fitxategiak kategoria honetan daude, eta guztira 10 fitxategi dira kategoria honetan.

						
3-4 TTUNTUNA (Soinuenea JMBA bilduma 133) webm 1m 11s, 1.080x606, 5,1 MB	Isturitzeko flauta (Soinuenea, JMBA bilduma 1506) webm 1m 6s, 1.280x720, 5,13 MB	IZTURITZEKO FLAUTA (Soinuenea JMBA bilduma 1506) webm 1m 6s, 1.080x606, 4,45 MB	Okarina (Soinuenea, JMBA bilduma 983) webm 1m 2s, 1.080x606, 6,95 MB	SILBOTEA (Soinuenea JMBA bilduma 1252) webm 1m 17s, 1.080x606, 3,84 MB	TXISTUA (Soinuenea JMBA bilduma 114) webm 51s, 1.080x606, 2,77 MB	TXISTUA eta DANBOLINA (Soinuenea JMBA bilduma 114-1065) webmhd.webm 53s, 1.080x606, 3,26 MB











Badok proiektuko materiala ere berrerabili dugu, lizentziak baimendu duen artean. Horrela ere hobetu dira euskal musikariaren edukiak, eta gaur egun lana egiten ari gara euskarazko musika-diskoaren informazioa Wikidatan egon dadin, EHUko Informatikako ikasleen lanari esker.

Azkenik, antzerkiaren eremuan ere lan egin dugu Azpeitiko udalarekin. Bertan antolatu da 40 urtez Euskal Antzerki Topaketa, eta altxorra dute argazki, konpainien informazio eta karteekin. Horiek Commonsara askatzeko lana egin dugu, eta dagoeneko ehunka argazki eta poster eskuragarri daude, etorkizunean euskal antzerkiari buruzko artikulua hobetzeko aukera ematen diguna.

Media "Azpeitiko Euskal Antzerki Topaketak" kategorian

Ondorengo 200 fitxategiak kategoria honetan daude, eta guztira 292 fitxategi dira kategoria honetan.


(aurreko orrialdea) (hurrengo orrialdea)

				
1983-1984 kartela.jpg 8.350 x 12.061, 43,57 MB	19831203 1503-P019.jpg 900 x 599, 360 KB	19831203 1523-P001.jpg 900 x 599, 357 KB	19831204 1538-P019.jpg 900 x 599, 374 KB	19831204 1549-P001.jpg 900 x 599, 282 KB
				
19831204 1500-P001.jpg	19831205 1596-P001.jpg	19831205 1597-P001.jpg	19831206 1613-P001.jpg	19831206 1622-P001.jpg


Gorputz hezkuntza

Gorputz hezkuntzan ere artikuluen aldaketa nabarmena izan dugu proiektuan zehar. Hasiera batean anatomiarri lotutako artikulua laburrak ziren, baina denborarekin olinpiar kirol guztiak biltzeko eta lantzeko saiakera egin dugu. Artikuluen batez besteko tamaina 4.376 byte zen hasieran, eta 17.807ra igotzea lortu dugu, %316,42ko igoera. Edukia laukoiztu dugu, beraz, ikasleek maiz irakurtzen duten eremu batean. Mediana 2.451 byte zen hasieran eta 17.019era igaro da proiektuaren amaieran. Honek erakusten digu artikuluen igoera orokorra eman dugula, oso orekatua baita batez besteko tamainaren eta medianaren arteko aldea: 1,75 zen hasieran, eta 1,05 da amaieran, filosofia soilik gainditzen duen parekotasuna.

Gorputz hezkuntza arloko artikuluen tamaina
Sei hilabeteko egindako neurketa



Grafikoak erakusten digu, berriro ere, ez dugula artikulurik 2.000 bytetik behera, eta hasieran genuen sortzeko artikuluen talde osoa laster egin zela. Beste eremuetan bezala, artikulua hobetu ziren 5.000-10.000 tartean jartzeko, baina azken urtean nabarmen gutxitu dira horiek, 20.000 eta 50.000 artean kokatzeko. Gaur egun talderik handiena 20.000 eta 30.000 artekoa da, eta horregatik batezbestekoa eta mediana bat datoz hain ondo, esparru horretan baitaude biak.



Artikuluen kalitatean aldaketa nabarmena izan da ere. Hasieran artikuluen bi heren C baino okerragoak ziren, eta asko ziren zirriborro hutsa. Ez zegoen, gainera, B baino hobea zen artikulurik, eta horiek ere ez ziren %10era iristen.

Gaur egun B baino hobek dira artikuluen %60 baino gehiago, eta “Ona” eta “Nabarmen” artean %30 osatzen dute. C baino hobek dira artikuluen %85 eta dagoeneko ez dago zirriborrorik.

Artikulu gutxi batzuk geratu dira “Hasi” moduan, zehazki euskal dantza batzuk, eta anatomiako elementu txiki eta zehatz batzuk.

90
artikulu

%316
hazkuntza

%86
C edo hobeto

Igoera honen ardura nagusia EHuko Kirol Fakultatean dago. Bertan landu ditugu, bereziki Euskararen Arauak eta Erabilerak ikasgaiko ikasleekin, kirol olinpiko guztien artikulua. Une honetan euskaraz daude udako zein neguko kirolak, euren terminologiarekin. Saiatu gara ere hori hedatzen, nolabaiteko glosategi bat eratzen, baina hori etorkizunerako lan gisa geratu da. Esan bezala, kirol olinpiko guztiak egin ditugu, eta izan ditugu ere kirol paralinpikoetan aritzeko aukerak, zein Olinpiar Jokoetan ez daudenak ere.

Horietako bat Euskal Pilota izan da, bi urtez landu duguna, espezialitate bakoitzaren arauak, funtzionamendua eta irudiak osatuz. Oraindik denbora beharko dugu modalitate guztiak ondo dokumentatuta egon daitezen, baina lan originala da, ez itzulpen soila. Ikasleek, gainera, irudiak eta audioak igo dituzte, modalitate hauetako azalpenak hobetuz. Kirolari batzuei ere elkarriketak egin dizkiete, kirolaren inguruko informazioa Wikipedian hobetzeko:

Eskupilota trinketean buruz buru

Hizkuntzak gehitu

Artikulu Eztabalda +Tx

Irakurri Aldatu Aldatu iturburu kodea Ikusi historia ☆ Tresnak

Kalitate neurraketa (5,49)

Eskupilota trinketean buruz buru [eskupilota](#) jokamolde bat da, [trinkete](#) batean bi pertsonen artean jokatzeko dena.

Pilotarien arteko harremana [aldatu | aldatu iturburu kodea]

[Eskupilotako](#) jokamolde honetan duelua simetrikoa da, konkretuki buruz burukoa, hau da, bat baten kontra. Horrekin batera, kontra-komunikazio harremana ere ematen da. Gainera, pilotarien artean erlazio baztertzalea eta egonkorra emango da, eta beraz, erlazio antagonista emango da. Horretaz aparte, lehenengo sakan izan ezik, sakearen arduraduna aurreko tantoaren irabazlea da.

Jokamolde honetan ez dago emakumeen txapelketarik, emakumeek ez dutelako ohitura trinketean jokatzeko, beraz, esan dezakegu orokorrean edo gutzit gizonezkoak aritzen direla.



EHuko Zientzia eta Teknologia Fakultatean ere hobetu dituzte artikuluetako batzuk, bereziki anatomia eta osasunari lotutakoak. Eta Medikuntza Fakultatean ere artikulua bakan batzuk hobetu dira, anatomiarri dagozkionak. HUHEZiko ikasleek euskal dantzei buruzko artikulua ere hobetu dute.

Wikilariak ere aritu dira artikulua hobetzen. Olinpiar Jokoei dagokionez, 2020ko Udako Olinpiar Jokoetan (2021ean ospatu zirenak) oinarria ezarri zuten olinpismoaren historia modu sistematikoan erakusteko, eta 2024an ospatuko direnen azpiegitura osoa jada sortuta dago. Euskal kirolarien inguruko informazioa biltzen aritu dira, eta historia osoan parte hartu duten euskal herritar guztiak daudela uste dugu.


Era berean, txirrindularitzaren historia hobetzen aritu dira beste hainbat, ehunka kirolari eta probaren emaitzak gehituz, bereziki Euskal Herrian jazo direnak. Harrigarria bada ere, txirrindularitzari buruzko informazioa futbolari buruz duguna baino hobea dela ematen du.

Azkenik, biografien eremuan ere, Txikipedia emakume kirolarien presentzia handitzeko proiektuak egin dira, dominaren bat irabazi duten ehunka emakumeren biografiak eginez Ikastoletan eta bigarren hezkuntzako hainbat ikastetxetan.


Zeharlerroa: emakumea eta generoa

Azken eremua curriculumek zeharlerro gisa agertzen den bat izan da: emakumea eta generoa. Eremu hau ez dagokio ikasgai zehatz bati, baina gure proiektuan txertatzea garrantzitsua zela uste dugu. Artikuluen batez besteko tamaina 1.647 byte zen hasieran, eta 21.211ra igotzea lortu dugu, %1.187,65ko igoera. Bai, edukia hamabi aldiz luzeagoa da orain, egindako esfortzua erakusten duena. Mediana 0 byte zen hasieran, sortu gabeko artikulua sortutakoak baino gehiago zirelako eta 13.579era igaro da proiektuaren amaieran. Honek erakusten digu artikuluen igoera orokorra eman dugula, nahiz eta ezinezkoa zaigun kalkulatzeko ratorik, hasieran 0 baitzen mediana.

Emakumea eta generoa arloko artikuluen tamaina
Sei hilabetero egindako neurketa



Grafikoa ere halakoa da. Hasieran artikuluen gehiengoa sortzeke zegoen, 46 artikulua, 70eko zerrenda batetik. Pixkanaka artikulua horiek egiten joan gara, eta dagoeneko gutxi dira sortzeke daudenak (6). Horrekin batera, ez dago artikulurik 2.000 bytetik behera, eta 20.000 eta 30.000 artekoak ere hazi dira, orain talderik handiena hor dugularik. 50.000tik gorakoak ez ziren existitzen hasieran, eta gaur egun talde nabarmena dira, hirugarren handiena.



Kalitateari begiratzen badiogu, hasiera batean (gogoan izan neurketa hau ez zela proiektuaren hasieran bertan hasi) artikuluen ia erdia ez zen existitzen, eta beste %30 inguru “hasi” motakoak ziren. Artikulu on oso gutxi genituen.

Pixkanaka C motako artikulua hedatzen joan ziren, eta hainbat nabarmen sortu. Sortu gabeko batzuk ere egin ziren, zirriborro gisa, baina horiek ere desagertu dira azken urtean. Dagoeneko sortu beharrekoak %10etik behera daude, eta C maila baino hobea dutenak %75 baino gehiago dira. B mota baino hobea diren artikulua ia erdia dira eta artikulua “on” asko daude.

70
artikulu

%1188
hazkuntza

%77
C edo hobeto

Igoera ikusgarria da, guztien artean handiena, eta logikoa da, hasieran sortzeke artikulu gehien zuen eremua baitzen. Hobetzeko zegoen margina askoz handiagoa zen. Hala ere, margin hori probestea beste gauza bat da. Ez dago unibertsitate gradurik gai hauek landu ahal izateko, eta existitzen den masterra ez da euskaraz, beraz ikasleak han hemenka aurkitu behar izan ditugu.

Egin ditugun ikastaro gehienetan aukera izan dute ikasleek gaitegiko artikulu bat hedatzeko, euren ikasgaiarekin lotuta bazegoen. Campus guztietako ikasleek landu dituzte, beraz, eremu honetako artikuluak. Artikuluetako batzuk, gainera, nabarmen sakonak dira, adibidez wikilari batek landutako “emakumeak informatikan”, edo HUHEZIKo ikasleek landu eta dokumentatutako “Abortatzeko eskubidea”. “Emakumeak Antzinako Erroman” edo “Emakumeen sufragismoa” artikuluak ere ikuspegi orokorra ematen dute, eta badaude ere zerotik egindakoak, “Euskal Herriko mugimendu feminista” bezalakoak. Artikulu hauen meritua nabarmena da, maiz ezkutatutako gaiak izan direlako.

Artikulu batzuek badute ere multimedia edukia. HUHEZIKo ikasleek bideoak eta infografiak egin zituzten artikuluetako batzuetarako. Feminismo artikuluak badu bideo bat, Ikusgelaren aurrekari gisa erabili zena dokumentazioa egiterako garaian, Gradu Amaierako Lan bat izan zena. Lan horrek erakutsi zuen bazegoela aukera bidez gaiak lantzeko, baina ikasleen parte-hartzearekin egitea bereziki zaila zela, horrelako sakonerako bideo bat lortu nahiez gero, gutxienez.



WikiEmakumeak taldeak ere sortu dira azken urteotan, euskal wikilariok lagunduta kasu batzuetan. Talde hauek, hala ere, biografiak egiten zentratu dira, eta ez dira izan, beraz, zerrenda honetako bultzatzaile nagusiak. Egin duten lana, beraz, txosten honetako beste esparru batean jasoko dugu.

Txikipedia


Hezkuntza proiektuarekin hasi ginenean Txikipedia sortu genuen, Vikidia proiektuan zeuden 700 artikulua gurera ekarrita, 8-12 urteko ikasleentzako baliabide gisa. Hasiera batean eduki gutxi bazuen ere, laster hazi zen tamainan, eta azken lau urteotan bereziki handia izan da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek egindako ekarpena. Horrela, ikasleentzako kontsulta gune izateaz gainera, publikaziorako ere baliagarria da, dimentsio berria eskainiz euskarazko Wikipediari.



Txikipedia
txiki eta aske

2023. urtea 6.300 artikulua baino gehiagorekin hasi du, sortu zenean baino bederatzita aldiz gehiago. Artikuluetako asko biografiak dira, gero ikusiko dugun ekimenen ondorioz, baina gero eta gehiago dira ikasleentzat baliagarriak diren elementuak. Txikipedia webgune bidez zein berariaz sortutako aplikazio bidez bisita daiteke, gainera, oraindik gehiago erraztuz edukirako sarbidea.


Txikipedia iragartzeko hainbat ekimen egin ditugu. Nabarmenena publizitate kanpaina bat izan zen, guztia jakin nahi zuen umeari erantzunak ematea proposatzen zuena.



JAITSI TXIKIPEDIAREN APLIKAZIOA!

Txikipediak dituen 6.300 artikuluek 2.750.000 ikustaldi izan dituzte 2020ko urtarriletik 2023ko abenduaren 31era bitarte, 1.883 ikustaldi egunean. Orrialderik bisitatuena Txikipediako azala da, eguneko 370 bisita baititu, 540.000 2020tik. Ondoren, Eguzki-sistema, ekosistema, izaki bizidun, Aro Modernoa, iraitz-aparatu, zelula, arnas aparatu, euskara, unibertsoa eta sumendi datoz. Azken honek 10.970 bisita izan ditu, 8 eguneko. Lehenengo 25 artikulurik ikusienetan hiru aro historiko daude (Historiaurrea, Erdi Aroa eta Aro Modernoa) eta beste artikuluen artean, gehiengoa, zientziarekin lotuta daude. Biologiak (anatomiak) eta unibertsoak osatzen dute talde handia.

Bisitak denborarekin hazi dira, hurrengo orrialdeko grafikoak erakusten duen moduan. Eta nabarmenak dira kurtoan zehar, baina oso gutxi, logikoa denez, opor garaietan.



Ikastolekin elkarlana

2020/2021 ikasturtetik aurrera Ikastolen Elkartarekin elkarlana egin dugu Txikipedia elikatzeko. Euren aisialdiko irakasleak trebatu ditugu Txikipediako edizioan, eta euren urtero hainbat ikastolatan eskaintzen dute aukera gisa Txikipedia elikatzea. Ehunka artikulua sortu dira horrela, gero eta ikasle gehiagok parte hartuz.

Lehenengo urtean emakume zientzialariak jorratu genituen, biografian sakonduz. Bigarren urtean Emakume Dominadunak proiektuaren berri eman genien (ikus beheago), eta emakume kirolarien inguruko artikulua sortu zituzten, baita ere euren inguruan zeuden bestelako elementuenak ere. Proiektu horrek beste irtenbide batzuk izan zitzaizkela erabakita, hirugarren urtean Wikipedia guztientzako oinarrizko artikulua eta euskal curriculumari lotutakoak eskaini genizkien, emaitza askoz interesgarriagoarekin. Laugarren urtean, orain garatzen ari dena, antzeko elementuak lotu ditugu, gai zientifikoak, kirolak, aisialdia, biografiak eta geografia uztartuz. Ikasleen artean interesgarriagoak izan daitezkeen kontzeptuak bilatzea da gakoa.

Ingurugelarekin elkarlana

Antzeko proiektu bat abiatu genuen Ingurugelarekin, lehenengo urtean belardietako espezieak identifikatu eta euren inguruan idazteko, eta bigarrean Euskal Herriko arrainen inguruan eta energiaren inguruan. Proiektu honek ez du izan Ikastolekin egindakoak bezainbesteko arrakasta, baina beste eskola batzuetara ere iristea lortu dugu, eta irakasleen formazioa eskaini dugu, aldi berean.


Zumaiako institutua

Zumaian epe luzeko proiektua landu dute, harik eta Txikipediari buruzko lau hilabeteko ikasgai bat eskaintzeko aukera izan duten arte. Eskolan lantzen dituzten gaiak, eta batzuetan gai libreak, ekartzen dituzte Txikipediara, maiz argazki eta audioz hornituta. Proiektu honek aukera ematen du urtero interes handikoak diren artikulua berriak sartzeko, eta ikasleek ere parte hartu dute irakasleen formakuntzan, euren proiektuaren nondik norakoak azaltzen.

Ikasi Otsorekin

Hiru urtetan zehar "Ikasi Otsorekin" proiektua egin dugu Eñaut Aiertzagüena ilustratzailearekin batera. Bi astean behin gai bati buruzko orrialde bateko komikia argitaratzen dugu, Otsu pertsonaia protagonista duela. Komiki hauekin Txikipediako artikuluak osatzen ditugu eta gaztettoentzako erakargarria den formatu bat eskaintzen diegu irakasleei, tresna bezala erabil dezaten ikasgelan.

Oraingoz 33 komiki argitaratu ditugu, baina gehiago izango dira 2024-2025 ikasturte amaierarako. Gainera, komiki bakoitza euskarazko testurik gabe ere igotzen dugu Wikimedia Commons artxibategira, nahiko balute beste hizkuntza bateko erabiltzaileek berrerabiltzeko aukera izan dezaten. Hemen egindako komiki batzuen adibideak:



Unibertsitatearekin lankidetzatza

EHUko Irakasle Eskolekin ere lankidetzan aritu gara artikuluak osatzerako garaian. Irakasleen formazioan interesgarria da horrelako tresna bat erabiltzen ikastea, eta urtero ditugu ehun ikasle gehiago artikulu batzuk taldeka lantzen. Etorkizuneko irakasleen formazio honetatik bioaniztasuna lantzeko aukerak aztertu ditugu, eta Eskola Urmaelen Sarearentzako proiektuak ere landu dira, Txikipedia publikazio gune gisa ulertuz.

Era berean, NUPEko ikasleekin matematikari buruzko artikuluak hobetu ziren, Geogebrarekin egindako bideoak gehituz geometriako hainbat gai azaltzeko. Tamalez, kolaborazio hori behin baino ez da egin. HUHEZIKo ikasleek ere parte hartu zuten matematikako beste kontzeptu batzuk bideoz eskaintzen.

Azkenik, EHUko Letren Fakultateko itzulpengintzako ikasleek ere hartu dute parte artikuluak sortzen, Vikidiatik itzulita. Ikasle batzuek praktika moduan egin dute, urtero kredituak lortuz Txikipediako artikuluak sortzearen truke.

Hezkuntza Ataria

Azken urteotan metatutako esperientziekin “Hezkuntza Ataria” sortu dugu Wikipedian. Atari honen helburua hezkuntza prozesuan laguntzea da, txosten honetan aurkezten diren gauza gehienetara sarbidea eskainiz. Irakasleentzako tutorialak, ariketak, liburuxkak, ikasleen formakuntzarako materiala, hezkuntza programako artikulua, Ikusgela edo Txikipediarako sarbide zuzena eskaintzen ditu, baita egiten diren proiektuen jarraipenerako loturak ere.


Atari:Hezkuntza

24 hizkuntza

Atari Eztabalda

Irakurri Aldatu iturburu kodea Ikusi historia Tresnak

hezkuntza programa
Wikimedia eta hezkuntza lotzen



Zer ikasi nahi duzu gaur?

- Matematika
- Biologia eta geologia
- Fisika eta kimika
- Kultura zientifikoa
- Geografia eta historia
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
- Hizkuntzak
- Literatura
- Ekonomia eta ekintzailtza
- Kultura klasikoa
- Filosofia
- Plastika eta ikus-entzunezkoak
- Musika, dantza eta antzerkia
- Gorputz hezkuntza
- Zeharlerroa: emakumea eta generoa

Hezkuntza baliabideak

- Ikusgela**
Ikasteko bideo libreak
- Irakasleen txokoa**
Ikasleekin Wikipedia aberasteko proposamenak eta baliabideak
- Laguntza orriak**
- 2023-2024 proiektuak**
- Lehiaketak**
- Txikipedia**
- Be[di]girada**

Irakasleentzako formakuntza


Irakasleen Txokoa izeneko gunean biltzen da irakasleentzako formakuntzan erabili dugun materiala, baita egin daitezkeen ariketak ere. Hauek izan ohi dira irakasleen formakuntza zuzenean erabiltzen ditugun loturak. Formakuntza horiek eskaini ditugu modu zuzenean (ikastetxe batzuetara bisitak, Bigarren Hezkuntzako Masterreko ikasleekin, Berritzegunearen bidez egin ditugun ikastaroetan...), zein zeharka, irakasleek idatzi dutenean bertan dagoena arakatzeko aukera eskainita.

Formakuntza saiakera hau etengabea izan bada ere, ez du eman ikasleekin zuzenean egoten garenean bezalako fruiturik. Irakasleen aldetik zaila da ariketa berri bat txertatzea euren planifikazioan, eta maiz beldurrarekin hurbiltzen dira gurera, euren ikasleak idazteko gai izango ez direla argudiatuta.

Liburuxkak

Proiektu honen baitan hainbat liburuxka ekoiztu ditugu, irakasleen zein ikasleen formakuntzan erabili ahal izateko. Guztien artean interesgarriena Ikastolen Elkartearekin landu genuen materiala da, irakasleek erabili baitezakete zuzenean, gure laguntzarik gabe. Hala ere, material hauekin aurreko puntuan aipatutakoa gertatu ohi zaigu: irakasleek zailtasunak izaten dituzte Wikipediarekin lan egiteko, eta planifikazioan sartzeko aukerarik ez dute ikusten.

Ikasleentzako beste bi liburuxka erabili ditugu, bata idazteko argibideak ematen dituena, bestea artikulua ilustratzeko laguntza. Liburuxka hauek nazioarten erabiltzen direnen itzulpenak dira, eta hasiera batean ikasle guztiei banatzen genizkien gelara joaten ginenean, baina material guztia sarean egonda, hain eraginkorrak ez direla ikusi dugu.



Bideo-tutorialak

COVID-19 pandemiaren testuinguruan bideo-tutorialak egin genituen, dagoeneko eraldatuta genituen laguntza orrialdeak hobetzeko asmoz. Youtuber formatuan egin genituen, normalean eskolan eskaintzen dugun azalpena grabatuta, eta atalka zatituta. Ikasleentzako baliabide interesgarria da, eta hainbat irakaslek hori erabiltzen dute gure presentzia fisikoaren ordez.

Bideo tutorialak



Bideo pilulak



Ikusgela

Ikusgela azken urteotan landu dugun bideo pedagogikoen proiektu bat da. Bideo hauek libreak dira, Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen oinarriekin bat eginez, eta Wikipediako artikuluak hobetzeko helburuaz gain, saretik ere modu autonomoan funtzionatzeko helburua dute, gazteenen kontsumo tendentziak hala ulertuta. Proiektua Humanitate Digitalen beka batekin hasi zen, eta prototipo batzuen ondoren, 2022an egin ziren lehenengo bideoak. Hala ere, 2023a izan da proiektuaren garapenerako urterik garrantzitsuenak.

2023 izan da Ikusgelak bere potentziala erakutsi duen lehen urte naturala. Urtea 14 bideoekin hasi genuen, eta urtea amaitzerako, 49 bideo daude argitaratuta, sei sailetan banatuta.

Aurrez martxan zeuden Filosofia, Ekonomia eta Euskal literaturari gehitu zaizkie hiru sail berri: Erronka digitalak, Badalab-ekin batera elkarlanean diseinatu duguna; Ingurumena, NEIKER zentroarekin batera ondu duguna; eta Zortziko Txikian, formatu berri bat esploratzeko aukera eman diguna: formatu bertikala.

Aurreko urtean esan genuen, proiektu honek indarra hartuko du bilduma txukun bat eskaintzen dugunean. Horri ekiteko urtea izan da pasa dena. Azken hiruhilekoan mugimendu handia igarri dugu, hezkuntza komunitatek esker mezuak, ikasle eta irakasleek bideoak erabiltzen dituztenaren zantzuak eta hizkuntza komunitateak eduki libreak bere egiten dituenaren sentsazioa.

Gure lehen helburua izan gabe, nazioartean ere sona izan du. Hainbat nazioarteko jardunaldietan aurkeztu da proiektua, WikiCred programarekin elkarlana egin dugu, eta horren ondorioz, filosofiako sei bideo bikoiztu dira katalanera, eta beste asko modu boluntarioan azpigitulatu dira. Ikusgelako bideoek hizkuntza hauetako azpigituluren bat dute gutxienez: ingelesa, gaztelania, frantsesa, katalana, hausa, bengalia, arabiarra, turkiera, esloveniera, gaelikoa, grekoa eta errusiera.

Gure asmoa astero-astero bi bideo argitaratzea da. Gaur-gaurkoz dugun hitzarmenarekin ezinezkoa zaigu hori lortzea, eta saiakera egiteko, hainbat deialdi konpetitibo eta elkarlan lortzen saiatu gara. EIMAKo laguntzaren bidez bi sail finantziatu ditugu, eta Badalab-ekin elkarlanean egin dugun erronka digitalenean ere euren laguntza izan dugu. Horrela lortu dugu 35 bideo zabaltzea 2023an, baina baita, 2024rako beste 20 ekoizita uztea. Tamalez, deialdiek indar asko eskatzen dute, eta ziurgabetasun handia sortzen dute.

Euskarazko Wikipediari prestigioa eta ikus-entzunezko geruza ematen dio Ikusgelak, ekosistema oso bat elikatzen du eduki libre eta eskuragarriak sustatuz. Bilduma polita dugu, espero dugu aurten beste hainbestekoa ekoiztea eta bide berriak irekitzea, baita egindako bidea zabaltzea eta finkatzea ere. Euskarazko ikus-entzunezko kontsumitzaileak hezi nahi baditugu, erronkarik ez zaigu faltako.



Sailak

Orain arte 52 bideo argitaratu dira, horietatik 35 2023an.


Filosofia

Lehenengo saila izan zen, 2022ko ekainean hasi zena urte horretan USEn sartzen ziren lehenengo bi emakumeen bideoekin: Simone de Beauvoir eta Hannah Arendt. Sail honek, orain arte, filosofoen pentsamendua aztertu du, modu labur eta ikusgarrian, animazioak erabiliz. Lehenengo urtean USEn galdetzen dituztenak aztertu dira, eta bigarrenean horiez gain bi euskal pentsalari eta interesgarriak diren beste emakume pentsalari batzuk ere sartu dira. Bideo hauek egiteko EIMArekin laguntza ere jaso da.

Bideoak egiteko metodologia elkarlanean oinarritzen da: Unibertsitateko aditu batekin egiten du lehen gidoia, eta bigarren batekin kontrastatzen da. Ondoren, Bigarren Hezkuntzako irakasle elkartearen Agorarekin ere egiten da kontraste hori, azken gidoia egite aldera. Gidoia behin izanda, bideogileek euren lana egiten dute, eta berriro bidaltzen zaie gidoiaren egileei, azken ikutuak emateko.

Orain arte jorrotutako autoreak hauek izan dira, orden kronologikoan:

- Platon
- Aristoteles
- René Descartes
- Immanuel Kant
- Mary Wollstonecraft
- Karl Marx
- Friedrich Nietzsche
- Hannah Arendt
- Simone de Beauvoir
- Michel Foucault
- Txillardegia
- Joxe Azurmendi
- bell hooks
- Sally Haslanger



Euskal literatura

Euskal literatura saila prototipoan egin genuen lehenengoa izan zen, marrazki bizidunen bidez Elbira Zipitria gaurkotu batek azalpenak ematen zituen bideo saila. Bideo hauek egiteko EIMAKo laguntza izan genuen, eta gidoia zuzenean landu zen, gaiaren inguruko testu-liburuetan esaten direnak kontuan hartuta. Zortzi bideo egin ziren lehenengo sailean, eta bigarren denboraldi bat izango da 2024an. Landutako zortzi bideoak hauek dira:

- Bernart Etxepare eta XVI. mendeko literatura
- Axular eta XVII. mendeko literatura
- Txomin Agirre eta XIX. mendeko literatura
- Txillardeggi eta XX. mendeko eleberrigintza
- Gabriel Aresti eta XX. mendeko olerkigintza
- Mariasun Landa eta XX. mendeko haur eta gazte literatura
- Xalbador eta XX. mendeko bertsolaritza
- Ez Dok Amairu eta XX. mendeko kantagintza



Bernart Etxepare eta XVI. mendeko literatura



Axular eta XVII. mendeko literatura



Txomin Agirre eta XIX. mendeko literatura



Txillardeggi eta XX. mendeko eleberrigintza



Gabriel Aresti eta XX. mendeko olerkigintza



Mariasun Landa eta XX. mendeko haur eta gazte literatura



Xalbador eta XX. mendeko bertsolaritza




Ez Dok Amairu eta XX. mendeko kantagintza

Ekonomia

Ekonomia izan zen abiatu genuen hurrengo saila. Bideo hauek egiteko Lanbide Heziketako lan-orientazioan aritzen diren irakasleen laguntza izan dugu, eurentzat bideo baliagarriak izatea bilatzen baikenuen. Bideoen diseinua ere ezberdina izatea nahi genuen, beste estilo batzuek nolako erantzuna jasotzen zuten ikusteko. Alazne Astorga aktorea kontratatu genuen formatu zuzenago batean kamerari hitz egiten jartzeko, youtuber baten ideiatik gertuago. Zazpi izan dira orain arte argitaratutako bideoak, baina beste hainbeste daude eginda eta 2024an argitaratzeko zain. Hauek ere EIMA katalogoaren bidez ekoiztu dira.



Balio Erantsiaren gaineko Zerga



Iruzur piramidala



Soldata garbia vs soldata gordina



Enpresa motak



Inflazioa



Barne Produktu Gordina



Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Ekonomian landu ditugun gaiak hauek izan dira:

- Balio Erantsiaren gaineko Zerga
- Iruzur piramidala
- Soldata garbia vs soldata gordina
- Enpresa motak
- Inflazioa
- Barne Produktu Gordina
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Ingurumena

Ikuspegi zientifikoan ere aurrera egin nahi genuen, eta ingurumenari buruzko bideoak ekoiztu ditugu. Horretarako, Aitor Cevidanek ikerlariarekin harremanetan jarri ginen, eta NEIKERren laguntzarekin egin dira bideoak. Hiru 2023an argitaratu dira, eta beste bost daude itxaron zerrendan 2024an argitaratzeko. Bideo hauen formatua ezberdina da, elkarrizketa laburrak baitituzten ikerlariak egiten duten lana azaltzeko, galdera zehatz bat erantzuten saiatuz.


Landu ditugun galderak, momentuz, hauek izan dira:

- Migratzen duten animaliek gauzak ekar ditzakete haiekin?
- Nola iristen dira espezie inbaditzaileak ekosistema berrietara?
- Animalia polinizatzaileak arriskuan daude? Eta horrela bada, zergatik?



Erronka digitalak

2023an martxan jarritako azken sailari "Erronka digitalak" izena jarri diogu. Bideo hauek Badalabekin elkarlanean egin dira, euren langilea den Leire Palaciosen aurkeztuak. Bideoen produkzioan Adimen Artifizialak erabilitako irudiak ere nahastu dira, erronka digital horien ulermenean sakontzen dutela iritzita. Bideoen helburua IKTren eremuan etorkizunean izango diren eztabaidagaiak aurkeztea da, baina ez daude guztiz lerratuta gaur egungo curriculumarekin. Berdin balio dute ere beste gai batzuetan (filosofian, hizkuntzan, ekologian...) lantzeko, badutelako mamia mundu teknologikotik kanpo. Hau da, bideoetan intersektzioa bilatu da digitalizazioaren eta gainerako eremuen artean.



Landu diren gaien izenburuak hauek dira:

- Algoritmoa: zer da? Eta nola eragiten digu?
- Adimen artifiziala: zertarako da gai? Eta noraino hel daiteke?
- Humanitate digitalak: pantailak eta gizarte zientziak, biak bat
- Metabertsoa: bestelako munduak bai, baina hobeak?
- Hizkuntza prozesamendu naturala: komunikazioaren iraultza?
- Big data: zer diote zenbakiek gutaz?
- Ekologia digitala: zenbat kutsatzen dugu online?
- Harreman afektibo digitalak: maitale artifizial bat nahi zenuke?

Zortziko txikian

2023ak ekarritako azken berrikuntzari “Zortziko Txikian” izena jarri diogu. Bideo laburrak dira, formatu bertikalean, beste plataforma batzuetarako pentsatuta, batez ere TikTok eta YoutubeShorts. Hala ere, euskarazko Wikipediako artikuluetan ere oso ondo funtzionatzen dutela ikusi dugu, azkar batean laburbiltzen baitute artikulua batek esaten duena, sarrera lagunduz. Bi eredurekin egin dugu proba momentuz: kontzeptu bat azaltzea edo aktualitatearekin jolastea. Aurrerantzean bideo gehiago izango ditugu bien inguruan.

Hemen jorratutako bideoak 2023an:

- Inauteriak
- Iruñeko Sanferminak
- Ilek
- Durangoko Azoka
- Leku muturrekoenak
- San Tomas
- Euskal herriak
- Olentzero
- Euskal mendiak



Horrez gain, gazteak Ikusgelan inplikatzeko modu berriak amesten ari gara, eta proba pilotu bat jarri dugu martxan. Hainbat unibertsitatetako ikasleei Zortziko txikian-erako gidoiak idazteko eskatu diegu. Gure asmoa 2024an horiek hartu, eta txukunak diren heinean, bideoak sortzea da. Aurrerago ikus-entzunezko ikasleekin zuzenean bideoak egitea ere aztertzen ari gara. Formatu berri honek aukera asko ematen ditu.

Aurrera begirakoak

Proiektuak gorputza hartu du aurrean. 49 bideoko bilduma dugu orain, alde batetik, bideo berriak ekoitzi, elkarlan berriak sustatu eta martxan dauden sailei kalitatez eustea tokatzen da; baina beste alde batetik, dagoena ondo komunikatu eta zabaltzea da indartu beharreko gauzatariko bat.

Sail berriei dagokionez, 2024an gutxienez hiru fronte irekitzeko gogoz gaude: Historia, unibertsala zein Euskal Herrikoa, material hori eskatzen ari zaigu jendea; Nola gertatzen dira gauzak? saila, eguneroko zientzia azalduko duen saila, ebazpenez haratago, zientzia ulertzeko bidea; eta Literatura Unibertsala landuko duen saila, besteak baino pausatua. Dagoeneko hiru bideak irekitzeko aurre-lanketak eginda ditugu.

Ekoizpena finkatzeaz gain, aurrekontuak finkatzea beharko du Ikusgelak 2024an. EIMAKo dirulaguntzan eskatutakoaren zati bat bakarrik esleitu digute, eta horrek hainbat bideo zalantzan jarri ditu. Ziurgabetasun horrek eguneroko lana zailtzen du. Gaur-gaurkoz indar gehiena bideoen ekoizpenean eta finantzazio-iturri berrietan jartzera derrigortuta gaude. Komunikazioari finago heltzeko aukera dagoela iruditzen zaigu, baina horretarako indar gehiago behar da.

Garaiko formatuetara gerturatu gara Zortziko Txikianekin, bide hori handitu nahi dugu. Urtero 20-30 bideo egin ditzakegu sail horretan, ematen du, eta ondo funtzionatzen dute. Horrek ekoizpena handituko luke.

Aurrera begira jarrita, Ikusgelak ehundaka bideo izan beharko lituzke, gero eta sail gehiago eta ezberdinagotan banatuta. Euskarazko ikus-entzunezko pedagogiko libreen erreferente bilakatu da dagoeneko, baina beharrei begira jartzean dena egiteko dagoela ikusten dugu. Euskarak leiho hori ere merezi du, segi dezagun horretan.

Jakindun

Jakindun proiektua izen bereko elkarteak egindako zientzia bideoz osatuta dago. Matematika, fisika eta kimikako ariketak nola ebatzi azaltzen da bideo horietan, irakasle partikular bat izango balitz bezala. Ikusgela proiektua hasi genuenean proposamena jaso genuen horrelako bideoak egiteko, baina jada egin direnez, Jakindunekin akordioa egin genuen bideo horiek guztiak aske uzteko. Jada azaldu dugunez, bideo horietako askok Wikipediako artikulua hobetzen dituzte, azalpen zehatzak emanez testuz zailagoak direnak argitzeko. Gaur egun 115 artikulua dira Jakindunen bideo bat dutenak, izan sarreran bertan, edo azpian, “Ariketak” izeneko atal batean, non bideo bat baino gehiago meta daitekeen (ikus, gorago, “Matematika” atala).

Bideoak askatu, formatu egokian ezarri eta igotzea ere Ikusgelaren parte bezala ulertu genuen hasieratik. Horrela, kimikako 88 bideo, matematikako 205 eta fisikako 72 daude igota jada. Bideo guztiak Wikimedia Commons-en daude eskuragarri.

Aldehidoak eta zetonek ariketa 1.webm 0,0s, 2.560x1.440, 86,67 MB	Aldehidoak eta zetonek ariketa 2.webm 5m 20s, 3.840x2.160, 180,54 MB	Aldehidoak eta zetonek Azalpena 4.webm 4m 7s, 3.840x2.160, 146,84 MB	Alkoholak ariketa 4.webm 0,0s, 3.840x2.160, 146,19 MB	Amidak ariketa 1.webm 4m 6s, 3.840x2.160, 152,07 MB	Amidak ariketa 3.webm 3m 22s, 3.840x2.160, 110,91 MB	Amidak ariketa 4.webm 2m 46s, 3.840x2.160, 116,43 MB
Amidak Azalpena 2.webm 2m 0s, 3.840x2.160, 81,98 MB	Atomoaren egitura eta dallonen eredu atomikoaren azalpenak.webm 2m 13s, 3.840x2.160, 77,94 MB	Azido karboxilikoak ariketa 1.webm 0,0s, 2.560x1.440, 78,3 MB	Azido karboxilikoak ariketa 2.webm 5m 0s, 3.840x2.160, 151 MB	Azido karboxilikoak azalpena.webm 3m 59s, 3.840x2.160, 160,97 MB	Bi ezmetalen arteko konbinazioak Ariketa 4 DBH.webm 4m 14s, 3.840x2.160, 165,72 MB	Bolumen molarra azalpena eta ariketa.webm 2m 4s, 3.840x2.160, 128,86 MB

Zenbakiak

Urte emankorra izan da 2023a. Guztira 35 bideo argitaratu ditugu, sei sailetan banatuta. Guztiak batuta, 173 minutu eduki berri sortu dira eta 1.637 irudi libre erabili dira horretarako.

Bideo guztiek batera 121 azpтитulu pilatzen dituzte, eta sei bideo bikoiztuta daude dagoeneko.

Wikipedian 279 orrialde daude dagoeneko Ikusgelako bideo batekin, orrialde horietako edukia 288.070 aldiz kargatu da hamabi hilabetetan.

Youtuben mila harpidetzako langa gaintu genuen abenduan, orain 1.285ean gaude. Bideo guztiak pilatuta, 50.000 ikustaldi izan dira bertan, 2.285 ordu edukiak ikusten.

Webgunean 7.548 erabiltzaile berri sartu dira eta guztira 16.746 bisita egin dituzte.

Sare sozialetako presentzia asko handitu da aurten: Twitterren 1.772 jarraitzaile ditugu, Instagram-en 816, Mastodon-en 164, Telegram-en 93 eta Tik-Tok-en 484. Guztira, sare sozialetan, 3.329 jarraitzaile pilatu ditugu.

Egunean Behinen-eko babesletza astean, 2.525 bisita izan ziren aplikaziotik webgunera. 45.016 pertsonari agertu zaie, behin behintzat, Ikusgelaren gaineko galderaren bat aplikazioan.

Wikipediako presentzia

Bideoak entziklopedian

Urtea amaitzerako, 279 artikuluk daukate Ikusgelako bideoen bat, bideo bakoitza artikuluko batean baino gehiagotan sar daitekeelako, alde batetik, eta bideo zatiak ere probesten ari garelako beste artikuluko batzuk indartzeko. Ikusgelako bideo bat duen orrialde bakoitzak logotipo bat du ere goian eskuman, Ikusgelako logoa erakusten duena. Horrek proiektuari bisibilitatea ematen diola uste dugu. Orrialde guzti horiek urtean 326.227 bisita izan dituzte, 894 bisita bakoitzak, batez beste.

Algoritmo

128 hizkuntza


Artikulu [Eztabaida](#) [Wikipedia](#)

[Irakurri](#) [Aldatu](#) [Aldatu iturburu kodea](#) [Ikusi historia](#) [Tresnak](#)

Kalitate neurketa (8,37)

Algoritmo bat problema bat ebazteko eman behar diren urratsen deskribapen formal bat da. Programazio-lengoaiaren bidez, algoritmoak ordenagailu batek egikari dezakeen programa bihurtzeko.^[1] Matematikan, informatikan, hizkuntzalaritzan eta beste zenbait esparrutan, **algoritmo** bat ongi definitutako instrukzio sekuentzia finitu bat da, ordenagailuz marbxan jar daitekeena, normalean, problema bat urratsez urrats ebazteko edo konputazio bat kalkulatzeko.^[2] Algoritmoak beti dira zehatzak, ez dira anbiguoak, eta jarraibide gisa erabiltzen dira kalkulatuak egiteko, datuak prozesatzeko, arazoak automatizaturako eta beste zeregin batzuetarako. Metodo eraginkor gisa, algoritmo bat espazio- eta denbora-kantitate finitu baten barruan eta ongi definitutako hizkuntza formal batean adieraz daiteke funtzio bat kalkulatzeko.

Hasierako egoera batetik eta hasierako datu batetik ("sarrera") abiatuta (agian hutsik egongo da), instrukzioek konputazio bat deskribatzen dute, eta, exekutatzen direnean, ondo definitutako ondoko ondoko egoera-kopuru finitu baten bidez egiten da, eta, aldi berean, "irteera" sortzen da, eta amalerako egoeran amaitzen da. Egoera batetik bestera igarotzeko bideak ez du beti **eredu determinista** jarraitzen, zenbait algoritmoek zorizko balloak ere integratzen baitituzte.





Asteko bideoa

Zabaldutako bideo berriei entziklopedian leku nabarmena eskaintzen zaie orain, Wikipediako azalean jartzen dira eta astero eguneratzen dira. Euskarazko orri ikusienetakoa da hori. Bideo horiek astero aldatzen dira, aurrez erabakitako algoritmo bat jarraituz. Bideoetako batzuk ere eguneko bideo nabarmendua izan dira Wikimedia Commonsen, mundu osorako hedapena emanaz.

Irudian ikus daiteke, adibide gisa, Joxe Azurmendiren bideoak asteko nabarmena izan denean duen lekua. Leiho horretatik ere Ikusgelako portalera sar daiteke.

Hezkuntza atarian lekua

Bideo-sorta txukuna dagoenez online, Wikipediako Hezkuntza Atariaren baitan Ikusgelak duen txokoa birdiseinatu da. Orain askoz errazagoa da bertan bideoak aurkitzea, azpiztituluen egoera ikustea eta bideoak dituzten orrialdeak identifikatzea.



Zabalpen kanalak

Twitter: Sare sozial honen etorkizuna askotan ezbaian jartzen bada ere, euskal komunitate indartsu bat duen plaza izaten jarraitzen du, eta bertan izan dugu hartu-eman handiena jendearekin. Aurten jarraitzaileak ia bikoiztea lortu dugu.

Instagram: Modu txukunean ikusten dira bideoak bertan, eta jende askok jarraitzen gaitu. Bideo bertikalak sortzen hasi garen heinean, reels-en bidez indarra irabazi dugu sare sozial honetan.

Telegram: Zarata gabe, edukia txukun eta minimalista jaso nahi duenarentzat aukera onena da. Mezularitzaz zabaltzen den eduki asko bertatik abiatzen da.

Mastodon: Fedibertsoan euskal komunitatea hazten ari da, eta proiektuaren izaerarekin bat egiten duen sarea den heinean, bertan ere bagaude, eta gero eta interakzio gehiago izaten dira bertan.

TikTok: Aurten ekin diogu TikTok-ari. Derrigorrezkoa zen bertan egotea, bideo kontsumo handiko sare soziala da. Zortziko Txikianekoak natiboan zabaldu diren arren, ekonomiako bideoak ere moldatu ditugu sare sozial horretarako, eta aurrerago eduki gehiagorekin hornitu nahi dugu kanal hau.

Estrategia bila, oraingoz ez gaude ganoraz:

- WhatsApp: Aurten kanalaren aukera zabaldu badute ere, uste dugu oraingoz ez dela gure plaza naturala, eta bertan ez egotea erabaki dugu.
- Threads: Instagram-ek sortu duen mikroblogging plataformarekin ere antzera gertatzen zaigu, funtzio bereko tresnak ditugu dagoeneko, eta ez dugu nahi multinazionalen sare guztietan egon.
- Facebook: Aurten erdizka utzi dugu bertan bideoak igotzeari, birpentsatu beharra dugu bertako jarduna, eta estrategia berriari ekin.
- Twitch: Zuzenekoak egiteko aukera lausotu zaigun heinean, ez dugu bertan egoteko beharrik ikusi.
- Buletina: 2024an sortu nahi dugun kanal berria da, hilero argitaratutako bideoak eta berriak zabaltzeko bide berria.

Komunikazio kolpeak

Aurkezpenak

2023an hainbat aurkezpen publiko egin dira, eta ikastetxe zein unibertsitatetan ere aipatu dugu, ahal izan dugun guztietan, kanal hauen existentzia.

Lehenengo aurkezpena Sarako Biltzarrean izan zen, apirilaren 11n. Antzeko datetan, Wikimedia Education nazioarteko konferentzian aurkeztu genuen Belgraden, eta bertan lotu genituen ere azpigitulu batzuk egiteko aukerak. Nazioarteko aurkezpen horiek ere jarraitu dute, Singapurren Wikimania 2023an egin zen aurkezpenarekin, alde batetik, eta hortik eratorritako Wikimedia Fundazioaren formakuntza saio batean, ondoren. Horietan guztietan interesgarri jo da horrelako ekimen bat.

Wikimedia Espainiak bultzatuta, beste aurkezpen bat egin zen kanpoan, azaroaren 11n Salamancan elkarte horrek egin zuen urteko bileran.

Euskal Herrira itzulita, Pentsatu! jardunaldian (azaroaren 17an) filosofiako profesionalen aurrean egin zen filosofia sailaren aurkezpena, Gipuzkoan EHUK duen campusean. Urteko azken aurkezpena Durangoko Azokan izan zen, Kabia gunean, Erronka Digitalen saila aurkezteko.

Egunean Behin


Alde batetik, azaroko aste batean Ikusgela izan zen Egunean Behineko babeslea, eta horrela, 2.525 bisita zuzen izan genituen webgunera bertatik, eta 45.016 pertsonak erantzun zuten proiektuaren gaineko galderaren bat aste horretan.

Eta bestalde, lankidetzan iraunkorrago bat abiatu genuen azaroan, ez babesle-astean bakarrik, baizik eta egunero, Ikusgelaren gaineko galderak agertzeko.

Horretarako 120 galdera idatzi genituen, eta orain, Ikusgela euskarazko jokuko galdera-mota bat gehiago da. Egunero-egunero agertzen dira bideoen gaineko galderak. Azken denboraldian, guztira, 63.000 jokalaritari aritu dira, eta 2.450.000 partida jokatu dira. Komunikazio elkarlan polita.

Durangoko azoka

Komunikazio kanpaina berezia egin genuen DA!n. Ikusgelako posterrak jarri genituen Landakon, eta eskuorriak banatzen aritu ginen bi egunetan. Jende asko gerturatu zen, eta ehundaka banatu genituen. Horrez gain, Kabian aurkezpena egin genuen.



Filosofia poltsak

Pentsatu! jaialdian urtero-urtero Batxilergoko filosofia irakasleak elkartzen dira. Ikusgela aurkezteko eskatu ziguten, eta aukera aprobetxatu genuen lehen bi denboraldietan sortu ditugun hamalau filosofoen irudiekin osatutako poltsa bat sortu, eta bertaratutakoei banatzeko. Horrela, komunikazio-kolpe horrekin, irakasleek eskoletan Ikusgelaren marka zabalduko dute.

Nazioarteko zabalpena

Eduki libreek gauza eder bat daukate: sekula ez dakizu nondik helduko den hurrengo elkarlana, eta ez dakizu zure edukiak noraino hel daitezkeen.

Horren adierazle dira 2023an gertatu diren hiru gauza:

- Filosofiako sei bideo katalanez bikoiztu dituzte katalanezko Wikipediako lagunek. Bikoiztaile profesionalak egin dute lana, komunitateak itzulpenak, eta guk koordinazioan lagundu dugu. Horretarako AEBtako WikiCred-etik lortu da laguntza. Emaitzarekin oso pozik daude, eta saileko beste zortzi bideoak ere bikoizteko funtsak lortu dituzte katalanek.
- Euskaraz normal bizi duguna, edukiak libre zabaltzea, anomalia da mundu mailako edukietan ere; eta hortaz, Wikimedia

Portal:Ikusgela en català

[Afegeix llengües](#)

[Portal](#) [Discussió](#)

[Mostra](#) [Modifica el codi](#) [Mostra l'història](#) [☆](#)

El portal d'una nova videoteca pedagògica i audiovisual per a la Viquipèdia en català



Ikusgela en català

Ikusgela (de l'èuscar, «auditori») és un projecte viquipedista que cerca la creació de vídeos educatius de qualitat professional, aptes per a la didàctica i el complement enciclopèdic i alhora accessibles universalment amb versions multilingües. Ha estat impulsat per l'Associació Cultural de Viquipedistes Bascos, amb el suport de l'administració pública del País Basc i la col·laboració de diversos viquipedistes catalans. Aquest portal serveix com a videoteca de tot aquest material audiovisual pensat en l'àmbit de l'educació.

Commons-en azalpen bideo gutxi daude. Hori horrela, filosofiako bideoak itzultzen hasi dira wikilariak. Astero itzulpen berriren bat heltzen da, oraintxe Ikusgelako bideoek hizkuntza hauetako azpituluren bat dute gutxienez: ingelesa, gaztelania, frantsesa, hausa, bengalia, arabiarra, turkiera, esloveniera, gaelikoa, grekoa eta errusiera.

Commons:WikiProject Subtitling Ikusgela

Proiektu orrialdea [Eztabaidea](#)

[Irakurri](#) [Aldatu](#) [Ikusi historia](#) [★](#) [Tresnak](#) ▼

Wikimedia Commonstik

This is a **WikiProject** with the aim to subtitle **Ikusgela** videos. You can add other languages to the effort using the template.

Subtitling [\[aldatu \]](#)

Philosophy [\[aldatu \]](#)

Video	eu	en	fr	es	it	ar	zh	ru	uk	pt	ca	sr	id	tr	bn	gl	ha	el	cy
Ikusgela - Hannah Arendt	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗
Ikusgela - Simone de Beauvoir	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗
Ikusgela-Descartes	✓	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗
Ikusgela-Kant	✓	✓	✗	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗
Ikusgela-Nietzsche	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✓	✓	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - Aristoteles	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - Platon	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✓	✗
Ikusgela-Mary Wollstonecraft	✓	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - Txillardeggi	✓	✓	✓	✓	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓
Ikusgela - Karl Marx	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - bell hooks	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - Sally Haslanger	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - Michel Foucault	✓	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗
Ikusgela - Jose Azurmendi	✓	✓	✗	✓	✗	✗	✗	✓	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗	✗

- Horrez gain, hizkuntza horietako Wikipedian Ikusgelako bideoak daude ikusgai. Hau da, Wikipedia gaelikoan euskara entzun daiteke, euren hizkuntzako azpituluekin.
- Wikimedia Commons-ek egunero eguneko-bideoa nabarmentzen du. Urtean zehar hainbat aldiz agertu dira Ikusgelako bideoak bertan. Mundu mailako Wikipedia askok bideo hori automatikoki eramaten dute euren Wikipediako azalera, eta horrela, jende berriarengana heldu dira eduki azpitulatuak.

Ikustaldi datuak

	Bideoa	Youtube	Wikipedia	Instagram	Twitter	Tik-Tok	Guztira
1	Ekonomia 1x05 - Inflazioa	907	18251	480	5082		24720
2	Literatura 05 - Gabriel Aresti	1798	18387	795	2105		23085
3	Ekonomia 1x06 - BPG	507	19021	1528	1130		22186
4	Literatura 06 - Mariasun Landa	735	11147	709	1035		13626
5	Ekonomia 1x07 - PEFZ	412	11663	392	6770		19237
6	Zortziko txikian 01 - Inauteriak	537	17084	1999	12900	1147	33667
7	Literatura 07 - Xalbador	934	19894	713	1496		23037
8	Zortziko txikian 02 - Ileak	325	12590	1848	1465	381	16609
9	Ingurumena 01 - Animalien migrazioak	437	6116	1538	3213		11304
10	Literatura 08 - Ez dok amairu	1276	18387	1081	3579		24323

11	Zortziko txikian 03 - Leku muturrekoenak	316	5795	1417	1390	785	9703
12	Ingurumena 02 - Espezie inbaditzaileak	249	6014	376	2385		9024
13	Zortziko txikian 05 - Euskal herriak	299	12272	2117	12400	1288	28376
14	Ingurumena 03 - Polinizatzaileak	263	12132	1030	2361		15786
15	Zortziko txikian 04 - Euskal mendiak	314	7561	1037	11725	1708	22345
16	Zortziko txikian 06 - Iruñeko Sanferminak	237	4513	730	3256	2426	11162
17	Erronka digitalak 01 - Algoritmoak	560	6585	1869	3822		12836
18	Erronka digitalak 02 - Adimen artifiziala	503	8313	1952	5233		16001
19	Filosofia - 2x01 Aristoteles	1247	9701	1767	1929		14644
20	Erronka digitalak 03 - Humanitate digitalak	132	435	1405	1423		3395
21	Filosofia - 2x02 Mary Wollstonecraft	432	7832	926	8703		17893
22	Erronka digitalak 04 - Metabertsoa	198	7850	1393	6069		15510
23	Filosofia - 2x03 Txillardegia	5240	17449	846	14321		37856
24	Erronka digitalak 05 - Hizkuntzaren prozesamendua	269	818	2004	6044		9135
25	Filosofia - 2x04 Karl Marx	333	3042	1142	7296		11813
26	Erronka digitalak 06 - Big data	151	491	494	3756		4892
27	Filosofia - 2x05 bell hooks	349	5253	705	4444		10751
28	Erronka digitalak 07 - Kutsadura digitala	191	6653	1155	2028		10027
29	Filosofia - 2x06 Sally Haslanger	228	620	854	13500		15202
30	Zortziko txikian 07 - Durangoko Azoka	111	4678	1094	3611	269	9763
31	Filosofia - 2x07 Michel Foucault	274	433	884	4714		6305
32	Erronka digitalak 08 - Harreman afektibo digitalak	177	2409	1127	1231		4944
33	Filosofia - 2x08 Joxe Azurmendi	858	530	993	9755		12136
34	Zortziko txikian 08 - San Tomas	219	2449	1343	1649	201	5861
35	Zortziko txikian 09 - Olentzero	282	1702	3203	3198	571	8956
	GUZTIRA	21300	288070	42946	175018	8776	

Unibertsitateekin egindako lana


Proiektua abiatu genuenean Euskal Herriko Unibertsitate guztiak jarri nahi genituen martxan. Proiektuaren pisuaren handiena EHUK hartu badu ere, esan dezakegu unibertsitate gehienetan izan garela. Aurreko ataletan azaldu dugu zein artikuluren gainean aritu diren, nahiz eta horrek xehetasun asko ezkututzen dituen. Atal honetan saiatuko gara estatistika orokor bat eskaintzen, egindako lanaren datuak errazago hel daitezzen.

320
ikastaro


10,6
milioi hitz

6.050
ikasle baino+

Proiektua hasi genuenetik 320 ikastaro eman ditugu unibertsitateetan, eta ikasleek 10,600.000 hitz baino gehiago gehitu dituzte Wikipedian (hau da, gehiago izan dira Txikipedia kontuan izanda). 6.000 ikasle baino gehiagok eman dute izena, eta ziurrenik askoz gehiago dira, taldeka egindako lan asko egon direlako eta izen bakarria eman. Onargarria da esatea 7.500 ikasle inguruk hartu dutela parte, uneren batean, gure programetan. 320 ikastaro horietatik 294 EHUUn izan dira. Ondoren HUHEZI da bakarria 10era iristen. Urteka 2019 izan zen ikastaro gehien izan genituen urtea, izan ere 2020 eta 2021ean pandemiak eragin handia izan zuen, eta hortik aurrera berreskuratu baditugu ere, eremu batzuk jada egintzat eman ditugu urte batzuetako lankidetzaren ostean.



Ikastaro gehien egin diren campusa Bizkaikoa izan da, 145 guztira. Gipuzkoan 84 egin dira eta Araban 64. Bizkain eta Araban banaketa nahiko egonkorra izan da, nahiz eta 2019an Bizkaian askoz gehiago egin ziren besteetan baino. Gipuzkoan, ordea, pixkanaka jaisten joan da egindako ikastaroen kopurua, ziurrenik bertan planteatutako modalitate aldaketen ondorioz: ikastaro orokorrak egingen saiatzea, irakasleen formakuntza bidez, zuzenean geletara joan beharrean. Datu hauek hurrengo grafikoan ikus daitezke:



Neurkerta sistemak dituen programazio irizpideen ondorioz, ezin diogu jarraipenik egin Txikipedian egindako lanari. Campus batzuetan, bereziki Araban, Txikipediak pisu handia izan du eta, horregatik, bertako datuak pixka bat baxuagoak dira benetan egin den lana baino. Hurrengo orrialdean dagoen grafikoan ikusten da gehitutako byte kopurua urteko eta unibertsitateko. NUPen Txikipedian egin zuten lan, beraz ez zuen eraginik izan neurketan. ESTIAN editatoi txiki bat egin zen, eta ez zen eurek egindako lan txikiaren jarraipenik egin. Beste unibertsitateetan soilik Wikipedia egindako lana islatzen du grafikoak, nahiz eta batzuk Commons-en edo Wikidatan ere aritu diren.

Ikusten denez, 2021 izan zen urterik oparoena, 12.780.000 byte gehiagorekin, eta ondoren 2022, 9.260.000 bytekin. EHU-n 40.104.000 byte baino gehiago gehitu dituzte Txikipedian, eta esanguratsua da HUHEZ-Iren kasua, ikastaro gutxiago egin baitira baina ia 10.550.000 byte gehitu dituztelako.



Buruxkak eta Klasikoen Bilduma

UEUk argitaratutako Buruxkak eta EHUk egindako Klasikoen Bilduma testu osagarrien bilduma ezin hobeak dira. Biekin egin dugu lana, ahalik eta testu gehien askatzeko. Buruxkak erabilgarria izan da hainbat testu historikoren itzulpenak jasotzeko, adibidez. Klasikoen Bildumaren kasuan, liburu gehienak domeinu publikoan daude, baina itzulpena ez, hori bere egilearena da. Edukiak askatzeko itzultzaileei idatzi genien, eta euren baimena eskatu liburuaren itzulpenaren beste kopia bat Wikitekara igotzeko. Une honetan 17 liburu daude igota Wikitekan, baina gehiago igotzeko baimena dago.

Humanitate digitalen beka

Humanitate digitalen beka antolatu dugu UEU eta HD Gunearekin batera, ikerketa bultzatzeko helburuarekin. Hiru urtez aurkeztu dira proposamenak bertan, eta beka jaso duten proiektuen artean daude, adibidez, Ikusgelaren ernamuina izango zena. Beste proposamen interesgarri batzuk izan dira Emartistak, emakume artisten irudiak askatzeko ekimena; Manuel Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza* digitalizatu eta Wikitekara igotzeko ekimena, alderantzizko bilaketa lehenengo aldiz baimendu zuena; XVIII. mendean Euskal Herrian argitaratutako guztiaren bilaketa eta Wikidatan antolatzeko ekimena; edo euskal prentsan egiten diren pertsonen aipamenak orraztu eta Wikipedian proposatzeko bot bat. Bertatik ere jaio dira beste ekimen batzuk, Ahotsak proiektuaren datu-basea Wikidatarekin parekatzeko proposamena edo Inguma datu-basea hobeto antolatzeko ideia bezala.

Gainontzeko artikuluak hobetu

Euskarazko Wikipediaren hobekuntza orokorra

Wikipedia etengabe hazten ari den proiektua da, etengabe hobetzen. Hazkuntza hori, gainera, organikoa da, eta edozein norabidetan eman daiteke. Euskal Wikilarien Kultura Elkartearen lanaren zati bat hazkuntza nahi hori bideratzea da, erronka zehatzak ezarrita. Wikilariak, hala ere, nahi duten norabidean jarrai dezakete, eta pentsatu gabeko beste elementu askotan lan egin. Hobekuntza orokorrari buruz hitz egitea, horregatik, zaila da: hemen deskribatzen ez ditugun gai askotan ere hobetu delako Wikipedia. Badira wikilariak ez dituztenak artikuluak sortzen, soilik hobeto antolatzen; badira zuzenketak egiten dituztenak, eta badira irudiak gehitzen dituztenak; badira wikilariak urteak daramatzatenak zaldi arrazen inguruko artikuluak sortzen, eta badira ere erabilera arauak hobeto zehazten denbora inbertitzen dutenak. Badira wikilariak Wikipedia ez dutenak hobetzen, baina kanpoan beste batzuei laguntzen dietenak proiektua hobeto ulertzen.


Proiektu hau abiatu genuenean esan genuen erronka ez zela artikulu kopurua, baizik eta horien sakonera. Artikulu asko eta laburrak egitea teknikoki erraza izan zitekeela, baina ariketa bera hutsala zela. Erronka pertsona gehiago batzea zela, sakonera handiagoko artikuluak egitea, eta hazkuntza kalitatean egitea, eta ez hainbeste kantitatean. Aurretik aipatu dugu gure Hazkuntza Programari buruz nola hobetu diren 12-16 urtekoek behar dituzten artikuluak, eta ondoren aipatuko ditugu ere beste zerrenda gako batzuetan egindako aurrerapausoak. Ikus ditzagun, beraz, orokorrakoak diren hobekuntza batzuk.

Wikipedia Lur Hiztegi Entziklopedikoaren modu berebean inprimatuko bagenu 313 liburuki izango litzuke gaur egun. Lur Hiztegi Entziklopedikoa 3.411.896 hitz zituen 13 liburuki ziren. Euskarazko Wikipediak gaur egun 82.027.733 hitz ditu.

Neurketa hau ez zen posible proiektua hasi genuenean, Wikipedian hitz kontagailurik ez zelako. Hala ere, 2022ko urtarrilean instalatu zenean 65.893.785 hitz zeuden. Hau da, bi urtetan 16.133.948 hitz idatzi dira, Lur Hiztegi Entziklopediko osoa bost aldiz, edo 65 liburuki. Aurreko bi urteotan antzeko erritmoan hazi baginen, gutxienez 120 liburuki idatzi ditugu azken lau urteotan.

2022ko urtarrilean 386.169 artikulu zeuden, hau da, artikulu bakoitzak 170,63 hitz zituen batez beste. 2023 amaizterako 425.000 artikuluen muga gainditu zen, hau da, artikulu bakoitzak 193 hitz zituen, %13ko hobekuntza artikuluko, eta %10 artikulu gehiago. Hazkuntza ez da guztiz lineala izan, noski, hurrengo ataletan ikusiko dugunez azeleratzen joan baita, baina neurketa orokorra egiteko balio digu.

Maiz begiratzen zaion elementu bat Wikipedia guztien artean dugun posizioa da. Gure erronka ez da izan artikulu kopuruan nabarmen egitea gorantz (esan bezala, erlatiboki erraza da intsektu guztien artikulu bana izatea), baizik eta kalitatean. Horregatik izan dira beste Wikipedia batzuk bot bidez sortutako artikulu txikiekin artikulu kopuru absolutuan gainditu gaituztenak. 2019an 29. hizkuntza ginen artikulu kopuruen sailkapenean eta orain 34. gara, bost puntu okerrago. Egiptoko arabierak, tartarierak eta Bân-lâm-gú izeneko hizkuntzetan egindako artikulu hutsalen sorrera masiboak badu zer ikusirik. Turkian Wikipediaren gaineko debekua kendu izanak ere bai, turkierak abiada bizia hartu baitu gorantz. Gure erronka, hala ere, artikuluen kalitatea zen, eta hurrengo ataletan ikusiko dugu nola hobetu dugun, nabarmena izan baita.



Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikulak


Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikulak, Wikipediak alderatzeko zerrendarik garrantzitsuena da, bertan dauden eduki guztiak oso ezagunak direlako. Wikipediak alderatzeko erabiltzen den sistema formula bat da: artikulua bat sortzeagatik puntu bat ematen da, 10.000 bytetik gorako artikulua bakoitzagatik 4 puntu eta 30.000 bytetik gorako bakoitzagatik 9 puntu. Horrela, 9.000 puntu da maximoa, eta horren arabera kalkulatzen dira ehunekoak. Hizkuntza bakoitzak gauza berbera esateko karaktere kopuru ezberdinak behar dituzenez, hori ere kalkulatzen da, Bibliako “Babelgo Dorrea” testua oinarri hartuta.

Euskarazko Wikipediak aspaldi lortu zuen 1.000 artikulak edukitzea, baina asko laburrak ziren. Orain dela lau urte, Hezkuntza Programako zerrenda osatzearekin bat, artikulua hauetako batzuk hobetzeko bidea ere hasi genuen, batez ere lehiaketan bidez. 2019ko abenduan 42. hizkuntza zen euskara, oraindik 4 artikulua egiteke, 570 labur, 293 ertain eta 133 luzerekin. Batezbestekoa 15.291 byte zen eta mediana 8.156. Bere gainetik bieloerrusiera zegoen, eta azpian eslovakiera.

Lehenengo bi urteetan igoera motela izan zen, batez ere beste zerrenda lantzen ari ginelako. Artikuluen hobekuntza pixkanaka ematen ari zen. Urtebete beranduago, 2020ko abenduan, 39. postuan zegoen euskara, artikulua guztiak sortuta, 469 labur, 320 ertain eta 211 luzerekin. Ikusten den bezala, artikulua luzeen kopurua nabarmen handitu zen tarte horretan. Batezbestekoa 22.784 zen jada, eta mediana 11.837. Gaietan indonesiera zegoen, eta azpian kroaziera. 2021ko abenduan postu bat egin genuen gora, 38.era, tamilaren eta errumanieraren artean.


Une horretan erabaki genuen lan nahiko egitea bi zerrenda hauek (1.000 eta 10.000 artikuluen) hobetzeko. Unibertsitateko ikasleekin, wikilariekin eta lehiaketan bidez egin dugu lan hori, eta emaitza nahiko interesgarria izan da. 2022an batez ere Wikipedia guztiek eduki beharreko 10.000 artikuluen zerrendan aritu ginen, baina hobekuntza jada hasi zen nabaritzen: 35. postuan amaitu genuen urtea, 26.955 bytekin batez beste eta 18.034ko medianarekin. 323 artikulua ziren laburrak, 394 ertainak eta, dagoeneko, 283 luzeak.

2023ko egitasmo txostenean planteatu genuen Hezkuntza Programan zein 1.000 artikuluen zerrendan aldi berean dauden artikulua guztiak 30.000 bytetik pasatzeko erronka. Horrekin kalkulatu genuen 5 postu egingo genituela gora, gutxienez. Baina emaitza hori baino ikusgarriagoa izan da. 2023ko abenduan egindako azken neurketan 18. postuan geunden, urte hasieran baino 17 postu hobeago, espero baino askoz hobeago. Batezbestekoa 34.172 byte zen, mediana 25.744 eta soilik 242 artikulua ziren laburrak. 484 artikulua luzerekin (bikoitza), euskara goiko postuetara bidean dago jada, helburuaren %63,27 lortuta.



Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluen zerrendan hizkuntzen posizioa, 2020-2023

Euskara da posizioa gehien irabazi dituen hizkuntza azken lau urteotan, 42.etik 18.era



Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikulak

Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikulak, edo “Wikipedia guztiek izan beharreko artikuluen zerrenda hedatua” proiektu kolaboratibo erraldoi bat da, mundu mailan interesgarriak izan daitezkeen arlo guztietako 10.000 elementu identifikatzeko. Elementu hauen inguruko eztabaida egon daiteke, izan ere Mendebaldeko kulturak leku garrantzitsua du eta, batez ere, kultura anglosaxoiak. Baina biografien eremua kenduta, beste guztietan oreka nahiko dago.

Wikipedia guztiek zerrenda honetan egindako aurrerapenak neurtzeko formula bat erabiltzen da, aurreko puntuko formularekin ezberdina dena. Sortutako artikulak bakoitzak 2 puntu balio ditu, 8.000 bytetik gorakoek 3 eta 16.000 bytetik gorakoek 4 puntu. Guztira, beraz, 40.000 puntu lor daitezke, baina artikulak edukitzeak jada puntuen erdia ematen du. Horregatik, garrantzi berezia du zerrendan gora egiteko artikuluen existentziak, eta hortik aurrera artikuluen sakonerak hartzen du garrantzia. 40.000 puntu dituen entziklopedia batek %100 lortu du, eta hortik behera dutenak ehunekotan eskaintzen dira. Ehunekoen arabera sailkatzen dira entziklopediak, baina hizkuntza bakoitzak dituen berezitasunak zerbait idazteko behar diren byte kopuruaren arabera kalkulatzen dira. Izan ere, askoz zailagoa da hizkuntza silabiko batean (demagun, txineraren aldaerak) 16.000 byte lortzea latindar alfabetoan idatzitako batean baino. Kalkulu hau egiteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala erabiltzen da, hizkuntza askotan eskuragarri dagoen testu modernoa izaki. Euskaraz testua ingelesez baino pixka bat luzeagoa da eta, horregatik, 16.000 byte lortu beharrean 16.343 lortu behar ditugu gorago joateko.

Proiektu hau hasi genuenean, euskara 36. postuan zegoen zerrenda horretan, %43,81 eginda, estonieraren eta ingelesa sinplearen artean. Hala ere, lehenengo urteetan ez genion arreta berezirik jarri zerrendako artikulak hobetzeari, lehenago Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikulak zein 12-16 urtekoentzako 2.000 artikulak landu nahi genituelako. 2022an hasi genuen erronka garrantzitsua, 33. postuan geundenean: zerrendako artikulak guztiak edukitzea. Ez da erronka makala, izan ere hiru hizkuntzek baino ez zuten bete une horretara arte erronka hori: serbiera, arabiera eta katalana. Ingelesa gertu zegoen, baina baziren sortu gabeko bost bat artikulak.

2022an lehiaketa bidez, lehenengo gaika, ondoren falta ziren guztiak jarrita, abenduan lortu genuen falta ziren guztiak (1.324 artikulak ziren) sortzea. Wikilariak hartu zuten parte, baina unibertsitateko irakasle eta ikasleak ere erronkan barneratu genituen. Azken sprintarekin, 2022ko abenduan lortu genuen artikulak guztiak zitzuten lau hizkuntzetako bat izatea. 2023ko otsailean, artikulak batzuk zerrendan aldatuta, hiru hizkuntza baino ez zeuden erronkari eusten: euskara, ingelesa eta serbiera.

List


Last Update: 16. Feb 2023.

No	Wiki	Language	Weight	Mean Article Size	Median Article Size	Absent (0k)	Stubs (< 8k)	Articles (8-16k)	Long Art. (> 16k)	Score	Growth
1	en	English	1.0	72,547	55,062	0	235	741	9,024	96.97	+0.03
2	sr	Српски / Srpski	1.121	25,043	19,808	0	502	1,180	8,318	94.54	+1.23
20	eu	Euskara	0.979	9,704	3,917	0	6,534	1,602	1,864	63.33	+0.30
9	ca	Català	0.971	20,560	11,662	2	3,428	2,100	4,470	77.59	+0.51
11	ar	العربية	1.408	27,967	11,692	2	3,689	2,368	3,941	75.61	+0.00
6	ru	Русский	0.908	30,489	19,283	9	1,844	2,473	5,674	84.51	+0.00
3	es	Español	0.897	33,577	20,541	13	526	2,814	6,647	90.20	+0.38

Urte 23. postuan amaitu genuen, hasi baino 10 postu hobeto. 2023ko erronka hobetzen joatea zen, kontuan izanda beste bi zerrendatan ere bagenituela erronka handiak: 12-16 urtekoen zerrendan 2.000 bytetik beherako artikulurik ez egotea eta zerrenda horretan eta Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluen zerrendan aldi berean zeuden guztiak 30.000 bytetik gora kokatzea. Bi helburu horiek lortzeko bidean beste zerrenda hau ere hobetzeko aukera izan behar genuen. Erronka gisa jarri genuen urtea amaitzerako 5 postu egitea gora, 18. posturaino.

Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen zerrendan hizkuntzen posizioa, 2022-2023

Euskara da posizioa gehien irabazi dituen hizkuntza azken bi urteotan




Aurreko orrialdeko grafikoan ikus daiteke euskarak izandako progresioa azken bi urteotan. Lehenengo 50 hizkuntzak hartuta, euskara izan da hobekuntzarik handiena izan duen hizkuntza, 33. postutik 2021eko abenduaren 16an (hilabetearen erdian egiten dira neurketak), 18. postura 2023ko abenduaren 16an. 2023rako jarritako helburua (5 postu egitea gora) lortu dugu, beraz, nahiz eta azken bi postuak abenduan izan diren.

Gaika ere aztertu ditugu artikulua, ikusteko non egin ditugun hobekuntzak aurten. Bi modutan egin dugu, alde batetik batez besteko tamaina eta medianak ikusten. Bestetik, gure hezkuntza programako tarte berberak ere hartu ditugu, parekatu ahal izateko.

Byte kopuruaren ehunekoak gaiaren arabera

10.000 artikuluen zerrendaren bisualizazioa Euskarazko Wikipedian, 2022 eta 2023ko abendua




Grafikan gero eta ilunagoa izan, orduan eta artikulua luzeagoak dituen eremua da. Ikusten denez, historia edo geografia dira artikulurik luzeenak dituztenak, eta giza eta gizarte zientziak dira laburren. Urte batetik bestera ere iluntzeko joera izan dugu eremu gehienetan, eta 500 bytetik beherako artikulua asko gutxitu dira eremu guztietan. Guztira 24 artikulua baino ez daude, une honetan, 500 bytetik behera, baina 637 daude 500 eta 1.000 byte artean, dudarik gabe etorkizunean hobetu beharreko eremua. 50.000 bytetik gora, neurketa guztietan artikulua nabarmen gisa izango litzatekeena, 328 dira. 907 artikulua daude 30.000 byte baino gehiago dituztenak, proiektuaren %9. Gure etorkizuneko helburua, hala ere, zerrendak eskatzen dituen irizpideak betez, 16.000 bytetik gorako ahalik eta artikulua gehien izatea da, hortik egingo baitugu gora zerrenda horretan.

Artikuluen mediana eta batezbestekoa ere neurtu dugu, eta hemen ere argiki ikusten da historia eremuak nola duen lidertza batezbestekoan, igoerarik ikusgarrienarekin, geografiak medianan duen bitartean.

Eremu bat dago mediana murriztu dela, “Antropologia, psikologia eta eguneroko bizitza”. Horren arrazoia zerrendaren berrantolaketan dago, orain artikulua gutxiago baitaude hortxe, eta horrek aldaketa estatistikoa eragin du.

Byte kopurua gaiaren arabera
Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen egoera 2022ko abenduan



Emakumeen presentzia

Ezaguna da Wikipedian, gizartean bezala, emakumeen ikusgarritasuna txikiagoa dela. Boluntarioen artean zein idatzita dauden biografietan eragiten du genero arrakala horrek. Gure proiektu honetan ez da izan helburu nagusia, baina egin ditugu urtero ekimenak bi arazoetan hobekuntzak izateko.

Emakume editore gehiago

Historikoki, emakume gutxiagok hartu dute parte Wikipediaren edizioan, eta Euskal Wikilarien Kultura Elkartean ere gehiago oso nabarmen bat da gizonezkoa. Gaiaren inguruko ikerketa nahiko egin dira, eta zergatiak mota askotarikoak dira. Wikilarien aldetik emakume gehiagok parte hartzeko helburua badugu, eta Hezkuntza Programarekin, behintzat, lortu dugu. Izan ere, hezkuntzan emakume eta gizon kopuru antzekoa dago, eta emakume gehiago unibertsitatean, bereziki lanketa egin dugun graduatan. Irakasleen artean ere gehiago dira emakumezkoak, bereziki Bigarren Hezkuntzan. Horrela, parte hartu duten 7.000 ikasle horien artean, erdia baino gehiago emakumeak izan direla argi dugu.

